1971 — EKAINAK, 6 XXXII - garren urtea 431 - Zenbakia

zeruko
# ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26686 - PREZIOA 6 PEZETA

## NON ZER


- EUSKAL IZAKETA Haranburu-Altunak ... ... ... ... ... ... 3 garrenean
- EMAKUMEA DALA TA Emakume batek ... ... ... ... ... ... 3 garrenean
- EGIA NOIZKO? Ugaldek ... ... ... ... ... ... ... ... 4 garrenean
- MEREZI DUTEN IZENEZ Ansolak ... ... ... ... ... ... ... 5 garrenean
- GURE EKONOMIAREN EGOERA Larreak ... ... ... ... ... ... 5 garrenean
- EUSKAL HERRIKO PAISAJEA Unzurrunzagak ... ... ... ... ... 12 garrenean


# SISTIAGAREKIN SOLASEAN

## ...ere erera baleibu icik subua aruaren...

LUIS HARANBURU-ALTUNA

Munduaren zehar, txalo eta sari ugari jaso ondoren Donostian ikusi berri dugu J. A. SISTIAGAREN filma. Benetan filma izigarria eta estrainoa. Zaila da filma hau inungo arte motatan finkatzea. Hirurogeita hamabost minuturen zehar, etengabeko abantail batean doan arnasa bat litzake. Mugarik gabeko denbora baten azalpen miresgarria. Mugimendu baten funtsa. Arte ororen ondamendian aurkitzen du SISTIAGAK bere estetika sorketaren jatorria. Arteen ukazionean aurkitzen du beste arte berri baten iturburua.

Osoki eta orobat ematen zaiku egilea bere lanean. Ekintza gogoeta da, eta gogoeta ekintza; biak lanean uztartuak dira. Pentsa molde guztiak sobera ditu. LAN bizi baten aurrean gara eta lankide sentiarazten gaitu.

SISTIAGAK, bere obraz, gure izatearen erro zaharrenen oiharzunak dakazki. Jatorra da eta agian aintzin denboretan sustraitua, zeren ba da hor gure kondaira osoaren errainurik. Aitzinean, artea lana zen eta lana artea, gure gizarteko kontradizioen zama astunaren pean datzan LAN hori birrerosirik argitara emana zaiku.

Kursaleko atarian eta ikusi berri dudan filmaren harridura buruan, oraindik bero, gisa hontara jardun naiz SISTIAGAREKIN solasean:

—*Zer dela ta egin duk filma hau?*

—SISTIAGA. Ez diat ideia batek bultzata tajutu, aitzitik inbestigazione, bilaketa, menturazko ekinaldi bat izan duk. Joka-lege bat aditzerat eman nahi nian, alegia, langintza baten prozesoa adierazi. Aitzina banian ideiarik, bengantza edo mendeku ideia bat hain zuzen, baina gerorat ideia hori baztertu egin diat, zeren arte ekintzak berak bultzatu bai du nire lanaren burutzea. Oinarriko mendeku ideia gaindurik artegintzara heldu nauk.

—*ZER esan nahi dik «Ere erera baleibu icik subua aruaren»?*

—SISTIAGA. Ez diat ezer aditzerat eman nahi, fonetika soila duk, filma osoa bezala galdera bat duk. Ez nian izenaz filma definitu nahi, hots, soinu hutsa duk.

—*Mutua ote duk, gero, hire filma?*

—SISTIAGA. Mutua... zer zentzunetan? Nor beraren barne musikari dagokionez? Nire filmak ez dik beste filmetan ohi den musika laguntzarik behar. Filma irudi soila duk, eta ez dik inolako doinuaren beharrik. Hain zuzen ere ba duk Paduan (Italian) emakume bat, elektronika moduzko musika bat egin duana, filma honetan inspiraturik, baina agian musika hori eraskin bat duk nire filmarekiko.

—*Hire filma sinfoni irugarri bat iruditu zaidak. Hire filmaren ixilak zerbait esaten dik, agian ixilune musikala duk, zer diok hik honetaz?*

—SISTIAGA. Bai noski, eta hain zuzen ere hortan datza doinurik ezaren beharra. Barne doinua dik. Eta funtsean nire filma hotsa besterik ez duk.

—*Lehen mendekua aipatu duk... Ene baitan artegintza oro politikoa duk. Politikoa duk hire filma?*

—SISTIAGA. Bai! Nire filma politikoa duk. Mendeku bat duk: Hemengo egoeraren kontra. Hemengo maitasunik ezaren aurka. Gure nagusien imajinaziorik ezaren mendekua eta salatzea. Bai, zinez artegintza oro politikoa duk; ez noski nire aldetik halako intenzionerik behar dudalako, baizik eta sorketa berri guztiak, gure ohitura zaharrak bortxatu egiten ditualako, eta hau honela izanik, arte sorketak ondorio politikoak zekazkik. Zeren lege zaharren bortxaketak agian pertsonen itzartze bat zekarrek.

—*Baina ez ote zegok sistima zanpatzaile horren aurka jokatzeko harma egokiagorik?*

—SISTIAGA. Bai noski, eta hain zuzen bakoitzak aukeratu behar dizkik bere borrokarako harmak. Nik artista bezala neronen baitara bilduaz, eta nire estetika sorketaren erantzunaren bidez borrokatuko diat. Oro arbuiatzeko eskubideaz, hots nire «droit au refus» erabiliaz, nire inguruaren aurrez esnai eta xelatan magok. Ez diat gertakizunen testigu izan nahi, neronek nahi dizkat gertakizunak sortu. Bizi sortzaile nauk eta ez, lege zaharren euskarri eta sostengu.

—*Platonek ziok Ederra eta Ona uztarturik dabiltzala, beraz artegintzak ba dik etikarik, zer duk hire filmaren etika?*

—SISTIAGA. Alegia, artista bere lanean ez dedilla prostituitu.

—*Lehen maitasuna aipatu dk eta orain prostituzioa. Hire filmari erotikoa zeritzat. Zer deritzak hik?*

—SISTIAGA. Ba zitekek, eta hain zuzen ere Roland Letaine, zinema-gintzaile eta kritiku belga hortik zioak: filma hau amodiozko kanta bat dela eta agian sexual ekintzaren azalpen bat. Maitasuna zuhaitz batean, bere ospelean, bere indarrean, itsasoan, ortzian eta non nahi zegokek. Nire filmak naturaren atsa atzematen dik. Eta natura hori gordina eta bilutsa diagu, horra hor nire filmaren erotiko alderdia.

—*Hire filma kosmogintzaren kanta bat iruditu zaidak.*

—SISTIAGA. Bai! Filmaren maila guztiak: haseran bakun, gero batzun eta aizken finean berez bera ondatuaz eta lehertuaz, adierazi nahi likek hala moduzko kosmogintza bat. Hain zuzen ere filmaren osaketan, nire baitan munduaren lau funtsesko gaiak nerabilzkian: ura, aidea, lurra eta sua. Filmaren hiru laurden ezkoa, ezea duk eta aizkenera beroa.

*7'gn orrian jarraintzendu*



# BERTSO BERRIAK

## Salomon Bigarrena

Aldizkari bat nere
eskutan erori,
denan ezaguna da
«Arantzazu» ori.
Gauza bildurgarriak
entzuna askori,
baina ainbestekorik
ez beintzat iñori.

Elizaren barnean
zenbat zalaparta,
ainbeste aldaketak
zalantza dakarta.
Dena zuzendutzeko
gizon bat bear ta,
orra, nun sortu zaigun
fraille bat aparta!

Salomon lenengoa
Jainkoen antzera,
bigarrena etzaio
gelditzen atzera.
Jainkoak bialdua
dena zuzentzera,
mundu ontako duda
guziak kentzera.

Otzaurteko seme bat
zenduan galdezka,
ainbeste dudarentzat
segurantzi eska.
a zuk golpetik kendu
orrenbeste kezka...!
Ori egingo duan
Salomonik ezta!!!

Elizaren dotriñak
ez dula zalantzik,
ta dogmak berriz iñoiz
ez dute mudantzik...
Au gogoratutzen dit
ainbat segurantzik,
ez diotala artzen
egiaren antzik.

Zalantza aundiakin
ainbeste jakintsu,
eta Eliza ere
daukagu berdintsu.
Baina zure ustetan
dira bi berritxu,
gizona nola jarri
liteke ain itxu?

Gizon kapazak dira
dudak dauzkatenak,
ez dira teologo
txotxolo batenak.
Baina munduko juez
jarri zeratenak,
aguro kondenatu
zerbait dakitenak.

Zalantzan dagoena
biurtu nai egi,
jendea engañatzen
ez da errezegi.
Gaur ziur egotea
ez al da geiegi?
ala komeni zaigu
ta orrela segi.

Bear etzan gauz asko
len erabaki zan,
zuk jarraitu nai dezu
lenagoko gisan.
Naiz ta Jangoikoaren
argi asko izan,
amaika anka-sartze
egin da elizan!!!

Guzia dogma jartzen
izan gera trebe,
orrek ekarri digu
amaika naigabe.
Zu berriz egin zera
egiaren jabe,
gizon jakintsuen bat
dudarikan gabe.

Lurrez egindakoak
eleiz zuzendari,
utsegin deguanok
gera pekatari.
Eta zergatikan ez
aitortu danari?
Ez al diozu entzun
Aita Santuari?

Zeruan dadukagu
sarrera debalde,
saiatzen geradenok
Elizaren alde.
Bide segurutikan
zertarako alde?
Salba nai dezutenok
Salomoni galde!!!

"IZAZPIK"

# NERE BORDATXOTIK

### AL DUGUNA EGITEKO PREST

Berriro, gure adiskide Jose Mari Donostiren artikulu eder bat irakurri genduen "La Voz de España" donostiar egunerokoan. Aren lan danak irakurtzen ditugun atsegiñarekin gaiñera.

Mingarri zitzaion esatea, baiña gertatzen diran pasaizo triste batzun berri ematen zigun.

"Ganberro" izenekoak ez dira kalez-kale ibiltzen diranak bakarrik.

Gure mendirik edererretara ere irixten dira "ganberroak", eta baita "ganberrokeri" lotsagarriak egin ere.

Aldatu-berriak diran arbola gazteak atera, adarrak birrindu, artzaien txabolak puskatu, mendi-gaiña zikinkeriz beteta utzi...

Ardiei tratu gaiztoak eman lepoko zintzarriak lapurtzeko.

Zuzenekorik ezer ez; okerrekotik nai dan guzia.

Sinisteak ere lanak ditu gure lurrean olakoak izan ditezkela. Ba-dira, ordea, zoritxarrez.

Donosti jaunak orixe egiten zigun: ba-dirala gogarazi.

Deadar eta karraxi egin genduen guk bere garaian "La Voz-en" orrialdetatik.

Garbiro salatu genituen egindako pekatuak. Aita Lasa agurgarria izan zan begiak argierazi zizkiguna.

Batzuk egal batetik eta besteak bestetik, egin genduen lanari esker, biotzak ikutu genituen.

Egitazko mendizaleak erabat mindurik eta naigabeturik gelditu ziran mendizale paltsoen jokabide negargarria jakin zutelarik.

Aiek egindako okerrak erremeritu ere bai, Donosti adiskideak zionez.

Palta zituzten zintzarriz osatu artzaiak; gaiñontzeko kalteak arinau.

Jaunari esker, oraindik jende ona geiago dalakoan gaude jende txarra baiño. Ala uste dugu beintzat gure lurrari dagokionez.

Egitazko mendizale zintzo ta biotz zabaleko auek ez luteke ezkutuan egon bear.

Erriak ezagutu egin bear lituzle, ta ixpillutzat artu.

Ondo ezitako jende guziaren esker ona merezi dute. Gure besarkadarik anaikorrena beretako bakoitzari.

Donosti adiskideak zionez, on aundia egin omen genezake guk. Gure izen apala ere aitatzen baizuen beste batzuenarekin batera.

Ez dugu uste guk moldatutako letra kaxkarrak eta "radio" bidez guk esandakoak ainbateko indarrik dutenik.

Alegiña egiteko beti prest gaude ordea. Gaizkilleen itxiskeriak agertzeko bezela ongilleen alderdi bikaiñak goraltzeko ta txalotzeko.

Maitetxoak ditugu Urbia gaiña ta euskaldun artzaiak aieri egindako bidegabekeriak ixilik gorde al izateko. Ez orixe!

Bear dan arrastoan ez dabillenak, gizatasunetik urruti dabillenak, bere zigorra merezi du.

Kontuz ibili ditezke emendik aurrera mendizale paltsoak.

Egitazko mendizaleak izango dira aiek zaituko dituzten polizi zorrotzak.

Lengo bidetik jotzeko asmoak badituzte, kontuak atera ditzatela zeiñekin dabiltzan.

Beste gaiñontzean ba-liteke ederki damutzea.

### BIZKAIAK IRABAZI

Berriatuako Aintamentuaren babespean, erri polit artako "Itargi" bazkunak (soziedadeak) eraturik, Bizkaia ta Gipuzkoa neurtu ziran igandean deman, proban.

Joan dan aspaldiko partez, denbora ona egokitu; zeru garbia ez, baiña, ezta euririk ere.

Ba-da ori zerbait aurtengo maiatzerako.

"Itargi" bazkunak ametsetako jotaillu bat dirudi. Txikia da, baiña bai ederki osatua.

Bertako jendeak egiña; bertan igeltseroak, bertan errementari edo erreroak, linternero, arotz, pintore ta gaiñontzeko danak. Borondate ona sobrean, eta baita anaitasuna ere.

Gaur, zoritxarrez, toki askotan ez dagona.

Berrogeitamar bazkide (sozio) dira "Itargi" bazkunean. 1967-garren urteko martxoaren emeretzigarren egunean zabaldu zituen ateak; orduan izan zan bere askunde edo inaugurazioa.

Berebiziko bazkari bikain bat antolatu zuten igandean. Norteamerikak Bilbaon duen konsul jauna ta bere emaztea maiburuan. Arratsaldeko proban parte artu bear zuten probalariak ere an ziran.

Aparteko sukaldari edo koziñero bezela agertu zitzaizkigunak, Jose Mari Calvo ta Jose Bilbao jaunak izan ziran. Bejondeizutela! Zuen emazteak egon ditezke gustora.

Pentsatzekoa zan bezela, jende asko bildu zan Berriatuan.

Gogotsu eta fin jokatu ziran danak. Ez dago iñorentzat zer esanik txikienik.

Bizkaitarrak nagusitu ziran, eta ondo merezitako nagusitasuna zuten. Gipuzkoarrak baiño idi indartsuagoak azaldu ziran bizkaitar idiak.

Eman dezagun ikusi genduenaren berri.

Lendabizi lanean asi zana, Aiako "Izetaren" idiparea izan zan.

Idipare onek 217 kiloko karga artu zuen arri gaiñean.

Itzaiak: Iruretagoiena "Izeta" anaiak.

Ogeitamar minutuan egindako lana: 30 plaza ta erdi, 2 metro ta 24 zentimetro.

Ondoren, Mujikako Elorriagaren idiparea ikusi genduen lanean. Au izan zan Berriatura agertu zan parerik onena.

Arri gaiñean artutako karga: 274 kilo.

Itzariak:

Iraetako "Gorria" ta Berriatuako Arriola.

Orduerdian egindako lana: 37 plaza ta laurden, metro bat eta 24 zentimetro.

Irugarren jokatu zana, Itziarko "Etxeberri" izan zan.

Arri gaiñean artutako karga: 187 kilo.

Itzaiak: Azkoitiako "Txikia" anaiak.

Orduerdian egindako lana: 31 plaza, 2 metro ta 70 zentimetro.

Tirakalari onak, intentzio gogorrekoak. Arintxoak, ordea, probaleku artarako.

Azkenik, laugarren, Berrizko "Antzuaren" txanda.

Arri gaiñean artutako karga: 202 kilo.

Itzaiak: "Antzua" (semea) ta Meñakako Yosu.

Orduerdian egindako lana: 32 plaza, juxtu-juxtu.

Bizkaiko idipare bien lanak bat eginda, era ontan dator kontua:

69 plaza ta laurden metro bat eta 24 zentimetro.

Gipuzkoako pare bien lanak bat eginda:

61 plaza ta erdi, 4 metro ta 94 zentimetro.

Bilbaon Norteamerikaren kontsul dan Joseph Smith jaunak egin zuen erregaloen banaketa.

Ganadu manta ederrik eraman zuten bizkaitarrak.

Gipuzkoarrentzat ere kopa dotoreak izan ziran. Dirutan berriz, 22.000 pesta, bizkaitarrentzat, eta 16.000 pezta, gipuzkoarrentzat.

Onenak irabazi zuten, batere dudarik gabe.

Sariak eta erregaloak jasotzeko denboran, txao beroak izan ziran, bai batzuentzat eta bai besteentzat.

Egitazko anaitasun eta gizatasuna ikusi zan Berriatuan. Gaiñontzeko guziak uskeri batzuk dira onen ondoan.

Euskaldun probalarien artean errespetu aundia ikusten da. Danak irabaztera joaten dira; egin litekean guzia egitera.

Gaur bati tokatzen zaio irabaztun izatea, ta biar besteari. Len bezin lagun eta adiskide danak, igandean gelditu ziran bezelaxe.

Beste ainbat probazalaren artean an zan —nola ez—, "Urtain" famatua ere.

Beatz lodia lotuta zeukan, baiña ezer gutxi izango dala uste du.

Iñoiz baiño itxaropen geiagorekin ikusten dugu Jose Manuel. Urte au amaitu baiño len bigarren aldiz Europako txapela jantziko duen uste osoa dauka berak.

Au oso seiñale ona da. Arazoa benetan artzen badu, gu ez giñake batere arrituko "Urtaiñek" ori egitearekin.

Eskerik beroenak Berriatuako jende atsegin eta biotz zabalari. Errege bat bezin ondo tratatu ginduezen. Aien jatortasuna gogoan izango dugu.

Baxarri

Egundoko
«LO-GELA SALMENTA»

- ERREDIZAK -
Probintziko guztientzat prezio bereziak.
Erri guztietara montaketa eta eramateak UTSEAN.
Joan-etorriak - Donostira bi pertsonentzat ordain duak.
ILLEROKO ZOZKETA bereziak, sari bikain eta erregaluak.
SALDU-ONDORENGO serbitzua garantizatzen dugu.
EPEETAN SARI BERDIÑAK ETA BEHERAPENAK!
Etorri, eta ZOZKETA AUNDIRAKO txartel bat UTSEAN ARTU. Erostea ez da beharrezkoa!
AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA
DONOSTI'AN, Moraza, 3 eta 14
IRUN'EN, San Marcial, 12

# AITA SANTUAREN AGIRI BERRIA

**Apaltasunez jantzia eta isiltasunez estalia izan dela esan dezakegu "Octogessima adveniens" eskutitza.**

**Apaltasunez jantzia. Utzi ditu aundi-maundikeri itxurako esaera eta itz mardulak. Laga ditu dogmakeriak. Xume eta apal azaldu zaigu Paulo VIgarrena.**

**Aundikiro Eliza osoari idazteko ordez "Zuzentasuna eta pakea" izeneko batzordearen buru dan Maurizio Roy kardenalari idatzi dio.**

**Arazo eta nahaspil aundiak dakus munduan. Baiña ez dauka guzientzat erantzunik. Galdera eta argi-izpi batzuk eskeiñi dizkigu ausnarrerako.**

**"Zail zaigu guzientzat erakutsi bakarra ematea. Baita zuzentzeko bide berdiña ipintzea ere".**

**Otzan azaldu zaigu Aita Santua. Etzaigu guzia dakian jakintsu usteko bat bezala agertu. "Giro bakoitzari bere erantzuna" eman behar zaiola aitortu digu. "Eta konpon bideak ere bat baiño gehiago izan ditezkela". "Sinesmen bereko kristauak bide desberdiñetara eraman dezazke siñesmenak mundugintzan", dio.**

**Arrokeriarik gabeko idazkia. Jauntxokeriarik gabekoa. Elkar-izketara eta ekintzara eragiten duan agiria. Gaurko arazo, iritzi eta jokabideak aintzat artzen dituan eskutitza.**

**Orain artekoak baiño irekiagoa eta askatasun-giro aundiagokoa duzu.**

**Eta bere apaltasun eta irekitasunean garrantzizko gaiak aipatzen dituana: gaur-eguneko aldaketaen zabaleroa, errien azitzea, baserritik kalera jeixtea, jendearen ugaritzea, industrializatzearen ondorenak, gazteria, emakumearen eta langillearen eskubideak, bereizkeriak, erriz-aldatze eskubidea, lan tokiak gehitzea, mintzabideen zapalketa, izadia desegiteko arrixkua...**

**Eta alaz guziz ere isiltasun arrigarriz ezkutatua izan da gure arteko mintzabide eta berri-emailleetan.**

**Oso gutxi izan dira agiri osoa argitaratu dutenak. Oso banakak ortaz tajuz mintzatu diranak. Isiltasun isillean zokoratua izan da.**

**Izan ohi da bada, gure artean, onelakoetan, lotsintxa eta zurikeria! Zer gertatu da oraingoan?**

**Zergatik ain isilik?**

**Ezer berririk ez dadukalako edo illuna, nahasia, zalantzatia eta utsa dalako edo gure arterako zer-erakutsirik ez dualako edo or esaten dan guzia "aspalditik betetzen" asiak geundelako?**

**Dena dela utzi ditu Aita Santuak agiri ontan aundikerizko jantziak. Utziarazi ditu gure artean ere lotsintxa eta zurikeriak.**

**Beste behin entzungogor egiteko bide izango ote?**

## EUSKAL MITOLOGIA

# EUSKAL IZAKETA

Nolako lan halako gizon, nolako gizon halako Herri.

Gizon orok natura berdin bat ba dugu. Baina natura berdin hori HITZA dela medio errotu eta bereizten da. Eta hitz berdinaz herri bat lan eta hitz-egiten dutenak HERRI bat osatzen dute. Baina ez dugu ahaztu behar hitz hori LANA bat dela. Lan berdin batez uztarturik gara geure Herri honetan. Beraz euskalduna, Euskal Herria lanaren bitartez Hizt-egiten duana dela esatean, euskaldun izatearen lehen aztarna emanik dugu.

Egun eta areago joaz, euskalduna nor dan, beste alderdi batetik ikuspegituaz, izate mailan euskaldun izatearen funtsa non datzan agertu nahiz, abiatu naiz. Izenaz gero izana eta tartean lana; alegia, euskaldun izena daramagunak eguneroko lanean frogatu behar dugu geure euskal izatea. Izate mailako langintza edo eziketa hau IZAKETA hitzarekin aditzerat ematen dut. Izaketa, izate mailako eite bat da. Egun eta hemen Euskal Herrian euskaldunok tajutzen dugun eite bat.

Ontologi moduzko solasa ez zait laket baina gogoko ez izan arren erabili beharrean naiz, zeren eta mendebaldarron buruko pentsa moldeak gisa hortara tajutuak ditugu. Beraz neure ekinaldia IZAN aditzaren konjugazione bat duzue, norbaitzuri konjugazione estrainoa iruditu arren.

«Nominalismo» deritzan pentsa arrera sarritan agertzen zauku geure mendebal honetako kultur kondairan. Delako nominalismo hori hontan datza: IZENA DUEN ORO, DA. Alegia, ni euskaldun banaiz ez da ez era hontako edo hartakoa naizelako, aitzitik euskaldun izena daramadalako. Beraz batzu batzurentzat euskaldun «izena» daramagulako gara euskaldun. Asko da, zori txarrez, honela pentsatzen duan gizonik. Euskaldun izenean ote datza ba, euskaldun izatearen funtsa?

Lehen ere esanik dut, baina agian berresan beharrean arkitzen naiz: hitz asko dela, xehe eta arrunt delakoz, mito alorrean errotuenak direnak. «Euskaldun» hitzaren mito alderdi bere arruntakeri berean datza. Hain zuzen ere, Euskal Herrian jaioa eta euskeraz mintzatzen den guztiak bere burua euskalduntzat jotzen du. Baina ba da hor errurik, eta erru larria gainera. Zenbait euskaldunek gure «izatea» izen soilean mugatzen dute. Baina oker doaz, arrazoi apur bat bederen ez dute, zeren halakoak, Euskal Herriko gizakide diren gizonak ontzi berdinera jaurti nahi dituzte. Eta gure arteko gizon mota bereziak izan eta izen berdinaz juzkatu.

Euskaldun izateko ez da aski, ez, euskaldun izena dun izatea. Euskal izana behar du, eta gero datorke euskaldun izena. Nehor ez dela euskaldun bere izen arruntaz klarki dakusagu beraz. Eta tenore honetara heldurik, goazemazue zertxo bat argitzera euskaldun izate kezka, ilun eta dudagarri hau.

Zenbait idazlek euskaldunak jardutean, badirudi segurantza osoz badakitela euskaldun izate honen funtsa non datzan. Eta bere lanetan zenbait euskaldun aztertzean, adi bidez; Loiolako Inazio edo Saint Cyran, euskaldun izatearen funtsa argitu nahiz dabiltza. Baina hauk euskal tipologia edo «izaera» batera heltzen dira. Beren jarduna sikologi mailan finkatzen da, baina ez soziologi edo politika mailan, eta giza aberea zerbait baldin bada abere politikoa da. Beraz euskaldunaren izatea soziologi, politiko eta ekonomiaren araberaz definitu behar dugu, batez ere. Interesgarri dira zenbait sikologi moduzko lan, baina geure egungo egoera honetan zenbait sikolojizko gutiziak, loarrazi besterik ez digute egiten.

Arrazoi, zio eta kausa bakar honetan finkatzen dut euskaldun izatearen funtsa: EUSKAL HERRIGINTZA LANEAN. Besterik, alferrikako solasa da eta mitoa solasean ardazten da. Solasean eta jolasean, sasi-euskalduntasun bat begien bistan jarri digute eta hala moduzko bereizkuntza batzuk emanik dizkigute. Dela txapela edo dela soin-indarra eta beste deus esan nahi ez duten zenbait adi-bide, berezi-bide edo azalpen hauk izan ziren, izan, geure nortasunaren mugak. Hala fede! muga urriak, ba dugu baldintza eta ahal handiagorik.

Hemen jaioak garenez, euskaldun izena dugunez, euskaldun izaten hasiak gara. Agian euskaldun gara baina GARENA IZATERA HELDU BEHAR DUGU. Euskal izaketaren bidez euskaldun izatera heldu behar dugu. Euskaldun izatea, fina, iomuga eta helburu dugu eta ez lehen bereizkuntza bat.

Inor ez da euskaldun jaiotzez soilez. Jaiotza gauza handia izan arren, hasera besterik ez da. Euskal izatea lortu beharreko zerbait dugu. Euskaldun izatea helburu bat da. Finean osatzen dan zerbait. Inor ez da euskaldun bere arauz edo aburuz. Funtsean eta finean euskalduna «ZERA» duna da. «Zera» hori hutsa, ez-osatua da, geure ekintzaz, eginahalez eta izaketaz bete hutsa bat.

Euskaldun izatea ez da berezko dohain bat ezenez eta lan baten ondorio eta saria dugu. EUSKAL HERRIGINTZAREN SARIA. Euskaldun izatea ez da ez gogo ez ta ere gutizia bat, baizik eta nor beraren baldintza eta ahalak Euskal Herriarekiko gisa onez osatzea. Jaioaz hasia dugun jarduna bere finerat jaso behar dugu, geure izaketaren bidez.

Malko, neke, lan eta esperantzan eratzen da euskal izaketa. Izaketak «hitza» erditzen du. Eta hitz batek, biak eta hitz askok, Hizkuntza osatzen dute. Euskeraz eta burnia gorriaren gisara bortizki moldatu behar dugu geure euskaldun izatea. Halatan sarituak izanen gara euskaldun izenarekin, gu Euskal Herriko langile bortitz eta esportzatuak.

Ez, ez da euskalduna euskeraz hitzegiten duan guztia ez eta euskaldun izena txantxetako eraskin bat bezala erabiltzen duana

Euskaldun izateko benetako herri zale izan behar da, eta are geiago langile. Langilea da euskalduna.

L H A

# EMAKUMEA DALA-TA

*Z. ARGIAren 423garren zenbakiak irakurgai asko dakarki emakumeaz eta gero, 425 garreneko idalaziak dion bezela, bazan garaia gutaz gogoratzen asteko. Ara zer adierazi nai nukean nere aldetik.*

*Entzun edo irakurtzean, itz bat nola edo zer eratan artzen dan, asko esan nai du eta «etxekoandrea» baiño itz txukunagorik, oitura bezela ez da noski Euskal Errian emakume eldu batentzat, zeren orren urrena ibilli oi dana, neskazarra edo atsua izan oi da. Baiña aurreko orren idazlanari bere esannaia edo muiña ateratzeko ez dago Euskal Erritik atera bearrik. Etxekoa, etxeari lotua, beti katibu dago gizonezkoaz konparatuta. Orrengatik, ongi daritzat emen jartzea, emakumearen bizitza nolakoa izan dan; eta guzia dijoa nik nere senitarte, erriko eta inguruetan ikusi ta entzun eta ezagutu dituanaz, gutxi gora beera.*

*EMAKUMEAREN JAIOTZA*

*Gure auzoo Mikelak alaba bat izan du eta urrengo azokan, bere senar Milixio ferian ikusi ta asten zaizkio zorionak ematen. Eta ala dio: «Bai! Ez de gutxiagotarako ere». Eta berriro galdetzen diote: «Ez al aiz ba aita egin?». «Bai. Azaldu zaigu utsaren urrengo bat».*

*Ori entzutean, ardangelako mirabeak esaten dio: «Kontuz itz orrekin. Zerorri ere, andra koskor bat etxeratu arte larri ibilli zerala entzun det ba. Alabatxo bat izango zan ura ere, zurea bezelaxe!».*

*SENIDEAK UGARITZEN*

*Ba ditu anaitxo bat edo bi eta orra aiei kontu egiten gure neskatxoa lau-bost urte orduko, seaskari eragin negar egiten badu, berogarriak zuzendu eta abar.*

*Ara berealatik asi egia biurtzen, idazlearen «mitoa», etxekoandre edo etxeari lotua bein sei, zazpi urtez gero, sukaldeko lana, ontziak garbitu, naiz ta garbilekura ezin iritxi. Eta bitartean, mutikoak azitzen baiña oriek gero ere ba daukate noski non nekatua eta orain beintzat, utzi deiogun. Eta or dabiltz jolas ta borroka, euren biurrikeritan.*

*IKASTOLAKO ADIÑA EDO GARAIA*

*Ikastolara ere pozik joango litzake gure neskatxoa. Iñoiz bidali izan dute baiña ba dakizute zer erantzun dioten: Orrek, meza-liburua irakurtzen ikastea, aski du. Zertarako emakumeak eskola geiago?*

*JAUNARTZE AUNDIA*

*Bein amar urtez gero, Euskal Errian oitura izan da «Jaunartze Aundia» deitzen zitzaion jaunartze ospetsua egitea, baldin kristau-ikasbidea badaki beintzat. Gure neska buru argiak ikasi du bere garaian eta iritxi da Jaunartze Aundiko eguna. Ori egin orduko, zai dauzka batetik eta bestetik, neskametzarako eske. Baserritar batek eskatu dute. «Dijoala! Or daukagu bestea sei urtekoa eta ura aski degu etxean. Baiña kalera ez iñondik ere, gaizki ikasteko besterik ez da kalea ta». Or dijoa bada, baserrira, aur zaintzeko «izenean», baiña... saiatzen dira etekiña ateratzen beste bearretan ere.*

*AMAREN GAIXO ALDIA*

*Amak, etxeko ta beste baratza lanak bizkor egiten oitua du; orrengatik, aren lekuko egitera ekarri egin dute etxera. Amalau urte baditu; aaleginak egiten ditu. Adin ontakoei gertatzen zaiena, erromerietara bere modukoekin joateko gogoa, onek ere ba du eta, jakiña, dantzan ere, larain lirain egiten du; lanean bizkorra bai, baiñan dantzan ere dotore egiten ikusi dute soiñu arin bat entzu orduko; bai atera ere, bertsoak asko luzatzeako.*

*«Ankak ariñak eta burua ariñago». «Dantzan obeto daki arta-jorran baiño».*

*ERROMERITIK, ETXERA*

*Erriko festak eta erromeria ustegabean luzatu eta etxerakoan, bidean, jo ez diote ba, illunabarreko «avemaritako» kanpaiak? «Au al den neska etxeratzeko garaia?». Zigorra eta ez nolanaikoa, aitaren eskutik artua; eta binbitartean, anaia, oraindik gazteagoa dana, or dabil, Jainkoak dakian ordutan. Orri, barkatu bear zaio; ez da itxurazkoa orri erritan egitea.*

*EMEZORTZI URTE*

*Ontan, iritxi da emezortzi urte ingurura, mutillen batek begiz jo du beretzako modukoa iruditu ta. Bai etxe-aldera lagundu ere jai batzuetan. Aitak aurki igarri dio, bai salatu ere eta galdetu: «Zein unan, or lagundu diñan ori?». «Zera... Joxe Antonio...». Ez dio astirik eman ere bear zuena erantzuteko. «Fa utzi deizken amets oiek alde batera. Nik billatuko diñat ori baiño etxe obegoko maiorazkoa!». «Baiña aita!». «Zer baiña ta baiña ondoko! Ik, esandakoa egin besterik ez dauken!».*

*Gure Milixiok ba du ba, lagun aundi bat txanpon batzuk dituana bere «kinto»-lagun, kuartelean elkarrekin egonak. Azokan ikusi eta atera du izpidea. «Ik seme jatorra ba dek ba...». «Bai. Etzekiat noiz andrea artzeko asmotan dagon». «Ez adi estutu. Nik emango diat iri alaba, errain jatorra». «Baita zera ere... Ik ezer ba al daukak ba, dotetzat emateko?». «Ara: Sei milla errial izango zian bestela baiño ire etxera joateagatik, amar milla emango zioat».*

*Etxekoak, gaizki ere, konponduko gaituk. Eta an dijoa gure Milixio iñoiz baiño pozikago, feriatik etxera, alaba etxe onean sartzeko era baduala ta.*

*EZTAIAK*

*Alabaren gogoz ez bada ere, izendatu dituzte ezkontza eta eztai egunak eta eliz lanak egin ondoren, badijoaz eztai-bazkarira. Aitak an darama alabari edo obeto esateko, alabaren izenean agindutako iru mordoxka. Bapo jan ta edan egin ondoren, or atertzen du aitak diru-poltsa esanaz: Au da nere alabari ematen diodan dotea. Onela aitak azaldu, alabak kusi eta senarrak jaso, bere izeneko diruak izanda, esku batetik bestera pasatzen ikusiarekin konforme bear gajoak.*

*OSABAREN «ERENTZIA»*

*Ezkondu ta urte batzutara bere osaba, aita-pontekoa, il zaio eta gure Milixioren alaba, orain andra gazte dan orri bi milla duro utzi omen dizkio eta esan diotenez, bere senarraren laguntza ta baimena bear omen ditu diru oiek jasotzeko. Polita kontua au ere! Bere anaia ezkonduak ez du, ba, emaztearen baimenaren bearrik izan berea jasotzeko!*

*—oOo—*

*Era ontako egitekoak geiago ere azaldu ditezke, emakumeran bizibidean gertatuak, baiña zerbait ulertzeko ainbat «mami» atera ditekela uste det esandakoekin, era berean ezurretako ikara sortzen ez badio beintzat, baten bati.*

*Z. ARGIAn aitatutako «emakumearen lurralde illuna» ondo egoki dator emen ere, zeren emakumea ezjakiñean eduki nai izandu da eta gero ezjakiñtzat artu.*

*Bukatzeko auxe esango nuke: Emakumea eta Euskal Erria elkarren antzeko egoeran edukiak izan dirala. Emakumea bear aldamenean, bere zuzen mentuaren zai ordu guzietan eta bere egitekoa, eskertxartutzen jardun. Bietan indarra nagusi, naiz arrazoia eduki.*

*Goierriko emakume batek*

ARGIA

**Zuzenadaria:**
**MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA**
Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

**ARPIDE SARIA:**

| | |
|---|---|
| Barruan | 250 pezeta |
| Korreo batasunetako errietan | 300 pezeta |
| Atzerrietako beste errietan | 320 pezeta |
| Aidez | Aurrez galdetu |
| Salmetan (ale bakoitza) | 6 pezeta |

# Euskal Herritik begira...



## EGIA NOIZKO?

*«Cuadernos para el Diálogo» erdal aldizkariak, berandu bederik, ale berezi bat argitaratu du (XVIII gn.), igaro berri diren hamar urteetan gertatuak aipatuaz, eta urren urteetarako bide egokiagoak aurkitu nahirik. Joaquin Ruiz Gimenez, legegizon eta idazle ospetsua, egiaz eta egia zaletasunaz mintzo zaigu. Patxadan irakurri ondoren, gure barnean galdera lazkarria erne zaigula antz emanen diogu: EGIA NOIZKO?*

*Lehenik, Elizaren eta Estaduaren arteko harremanak aztertzen ditu, loturak desegin beharra aldarrikatzen. Izan ere, berak dionez, Elizarentzat kaltegarrienetako gaitza askatasunik eza litzake, hots, Estaduari lotuta egotea, lepo zintzurretik ezarritako sokak behar duen arnasa hartzea ere eragoztea. Estaduarentzat ere, luzarora begiratuz geroz, ez dago Eliza bere arrastotik abiatzea bezalakorik. Gai honetan, bada, nahiz bati, nahiz besteari egia zaletasun apur bat eskatzen die, guztiontzat onurakor eta osasuntsu gertatuko zaigulakoan gainera...*

*Azken aldi honetan, eta hauxe da Ruiz Gimenez-ek bere lanaren bigarren atalean, darabilen gaia, aldizkariek zenbait gertaera eta jokabide estaltzeko edo, hitz handi eta ulergaitzak ipintzen dizkigute. Sozialismo hitzak ere bere indar guztia galdu duela esan diteke, bere onetik atera dute, mamia kendu ondoren, erakuskarri eta apaingarritzat ipinitako piztia, txori eta aberearen antzeko bihurtu zaigu. Oso da polita, guztiek miresten dute, zenbaitek aintzat hartu ere bai... Baina ez du bizirik, hilik dago.*

*Egiazko sozialismoak eskatzen duena behin betiko gogoan har dezagun. Eta horretaraino iristen ez bagera ere, humilki egia bere osotasunean onartu eta aitor dezagun. Goikoek eta behekook badukegu gai honetan zer aztertu...*

*Azkenik, hauxe dio espainiar idazleak, joandako hamar urteetan lortu ez dena, beste hainbestetan egia bihurturik ikustea opa digula alegia. Berak, dionez, asko dira aldaerazi beharreko gauzak, egoera honek eskatzen duen pauso eta abiadura, neketsua igo eta garaitu behar dugun aldapa...*

*Gure artean ere, aipatu dugun lan horrek badu gaurkotasun eta zer erakutsia. Nahasketa handiegia sumatzen da gure jardun eta ibileretan. Zenbait hitzi euren mamia kendu ondoren beste esanahi desegoki eta arrotza ezartzen die. Euren jardunaren jomuga ez da oraingoa: zatituz eta sakabanatuz, garaipena zurekin dukezu...*

*Arren, egia, egia gure lan eta saioetan, ekintza eta jokabidetan... Ez dezatela euskal soinekorik jantzi, erdal izaera eta trajearekin kontent daudenak...*

*Egia, egia bai, baina noizko?*

***Mikel Ugalde***

# astez aste

## BAIONAKO FERIA TA EUSKAL KULTURA

Baionako Feria barnean, uztaillaren 3 a euskal kilturari buruz antolatua izango da. Egun orren antolatzailleak bildu dira eta egun aberatsa izango dala agindu dute. Euskaldun liburu eta diska erakusketa aundi bat izango omen da egunez, eta arratsean berriz, kanta saio aundi bat.

## EUSKAL ASTEA BAIONAN

**Joan dan astean eman genduen Baionako Astearen berri. Iaz bezela, aurten ere izango da euskal aste bat Baionan, uztaillaren bigarren astean ain zuzen. Aurten ere Euskaltzaleen Biltzarrak eta Ikas batasunak artu dute beren gain aste orren tajutzea. Agian, ego-aldeko jende anitzek parte artu nahiko dute. Ez ahaztu, uda denborako planak egiterakoan. Eta idatzi Baionako "Musée Basque"ra, Baionako Astea aipatuaz.**

## ITSASUN, GEREZI-FESTA

Ekainaren 13-an, Ipar aldeko Itsasun gerezi-festa ospatzen da. Lehengo batean illaren 20-an izango zala adierazi genduen ala erabakia zegoelako; baiña egualdiaren gora beherak ikusiz gero aurreratu egin behar izan da eguna. Agian, ekainaren 20-rako gerezi sasoia pasatua izango dala uste dute eratzailleek.

## KANBON, PISZINA BERRIA

**Maiatzaren 10-ean ireki zan Kanbon eskolako aurrentzat putzu berria. Or ikasiko dute igerika. Eta inguruetako errietatik ere Kanbora joango dira aurrak: Itsasu, Ezpeleta, Ainoa, Senpere eta beste batzutatik.**

## EUN DA LAU LANGILLE LANETIK BIALDUAK

Bizkaitik datorkigu berria: "Franco-Belga de Minas" lantegintzak eun da lau bialdu-agiri zabaldu ditu bere langilleen artean. Elkarte orrek Gallarta ta Somorrostroko lurretan lan egiten du. Eun da lau sukaldetan, beraz, giro estua sortuko da, biar zer jango asmatu eziñik.

Lantegi berean 239 langille ari dira lanean; eta leengo batean, bizimodua garestitu dala ta jornala jasotzeko eskatu zuten. Goragada ori iristeko asmoz, batzuek lana utzi zuten. Ortik etorri zaie orain lan-tokitik bialduak izatea.

Ez bear au ezin luza diteke guztion kalterik gabe. Leenbaileen zuzenduko al dute nagusi-langille arteko kinka au!

## MENDIGO IZALEAK

**FORTUNA elkartekoak Elgoibartik Donostiaraiñoko abiaketa eratu dute. Amairu ordu ta 55 kilometroko bidea, ekainaren 6-an. Ibilkeeta aundia da, noski ta gauzak bere bidez badijoaz, goizean goiz Elgoibartik aterako da leenengo irukotea. Au izan diteke, mutil utsena, neska-mutillena, naiz neska-utsena.**

**Asieran ordubete ta laurdeneko igoketa pikea egin bearko dute, Arakate gaiñeraiño (724 metroko goibeea). Emendik Paguberuntz aldapa samurragoan. Urrengo, Azkarateko portura jetxiko dira (413 m.) baso-artean eta ur-erreken ots gozotan. Gorago, bi kilometroko errege-bidean gora, Madariagako auzora iritxiko dira (460 m.). Altzolako gaillurreraiño goraka jarraitu bearko dute (622 m.). Goltzibarko mendartera jetxiko dira urrengo. Andik Zestuara (72 m.).**

**Zestuko uretatik Aizarnara joko dute gero (243 m.) San Pelaioren ermitaraiño. Urdaneta (346 m.) izango dute aurrerako bidean. Emen geldituko dira ordubeteren bat jateko. Bidea pikea da ta kostako zaie, araiño nekatuta iritxiko diran ibiltariei. Zarauzko auzogunetik Laurgaiñera zuzen (170 m.), Artxodiko arru-barrenera urrengo jarduna, Ubegungo auzotik Orion sartuaz.**

**Oriotik, San Martingo ermita-zear, Gaztelu-osiña ta Aratzaingo benta igaroaz, Ondarretara joko dute. Bar Ezeizara iristeko izendatuta dute bidearen azkena. Ibillaldi gogorra benetan, mendigoizale auek egin bear dutena. Leiaketa ontan sartzeko Mendizale elkartu-agiria erakutsi bearko dute guziak. Bizkarrekoen zozketa eta irterako ordua emateko Fortuna elkartean batuko dira (Campanario, 2) ekaiñaren 3an, gaueko 8etan. Elkarte Fortunak berak beribillak jarriko ditu ibiltariak Elgoibareraiño eramateko. Donostiatik goizeko ordu bietan aterako dira, Gipuzkoako plazatik; eta bidean Tolosa, Beasain, Zumarraga ta Bergarako errietatik igaroko dira Eraketa errazteko, Kirol-Elkarteak beren izenak leenbaileen bialdu bearko dituzte.**

## BARDOZTARREN EGUNA

Maiatzaren 13-an ospatu zan Bardozen, bertako erritarren eguna. Kanpoan bizi ohi diran bardozetar asko ta asko etortzen dira jai egun ori Bardozen ospatzera. Erritik kanpo bizi diranek eratua da, orain ogeita bi urte, ohitura au eta urtez urte elkartzen dira ahal duten guztiak, bai eurentzat eta bai errian bizi direnentzat ordu zoragarriak igaroaz.

## AITA ARRUPE AMERIKETAKO JESULAGUNEKIN

**LIMA aldean ibillia degu Aita Arrupe, geldigaitza. An bere konbentuetako Aita probintzial guziak batuak ditu, berri-emaille katolikoak jakin arazten digunez. Astea an eginda gero, Peru'ko jesulagunen etxeak ikustatu ditu aste barruan. Urrengo asteleenean Peru utzi ta bere bideari jarraitu zion.**

**Liman ez du Aita Arrupek aorik ireki; baiña Quitotik igaro zanean, garbi agertu zuan bere ustez Latin-Ameriketan zer gertatzen zan. Alegia, alde aietan, Aita Arruperen ustez, diru-gizarte auzi gogorra degu, ta korapillo ori justiziz eta karidadez konpondu bearko da.**

## «ETOR»EK, LIBURU BERRIA

"Izatearen Malura", Xabier Azurmendik idatzitako liburu berria eskuartean daukagu. Esistenzial giroko euskal poema aberatsa, 1970-garren urtean "Agora" saria irabazitakoa. Uhain berriko abots bat dugu; norberatasun ederreko abotsa. Ulerterraza. Euskera, errikoia eta zentzunez landua. Liburu txukun onen azala, Agustin Ibarrolak egiña.

## «KANTA BERRI» SAIOA

**"Kanta Berria" txapelketak bigarren saioa Bilbaon behar zuan izan maiatzaren 30ean. Bat batean jakindu zan, larunbatez, debekatua izan zala Bilbaoko ekiñaldia.**


# BI IRAKASLE, «Ikas-Bide» IKASTOLARAKO

1. «Ikas-Bide» Ikastola Donostiako Amaran dago.
2. Oiñarri-ezikeraren lehen ziklorako, hau da, **6 urtetatik 10 urte** bitarteko irakaskintzarako, **irakasle bat behar du, emakumezko, nahiz gizonezko.** Irakasle tituloa behar **du.**
3. **Beste andereño bat** —ez da ezinbesteko **tituloa izatea**—, 6 urtetatik beherako aurrentzat.
4. Nahi duenak, idatzi beza zuzenbide honetara, **bere berri** emanez, bai eta lan-sari eta beste kondizio **guzien berri** jasotzeko ere:

Mikel Tolaretxipi

Marino Tabuyo, 4 - Donostia

Tlnoa: 322860

# CAJA LABORAL POPULAR

**(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)**

**— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —**

Aurrezki kutsa onen laguntzak: **— gizarte-saillean**
**— diruketa-saillean**
**— lantegi - zuzendaritza saillean**

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

**Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu**

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Mondragoi** | **Gernika** | **Gazteiz** | **Azkoitia** |
| **Aretxabaleta** | **Zumarraga** | **Bilbo** | **Munguia** |
| **Elorrio** | **Elgoibar** | **Legazpia** | **Yurre** |
| **Barakaldo** | **Markiña** | **Irun** | **Bermeo** |
| **Ondarroa** | **Bergara** | **Durango** | **Lasarte** |
| **Andoain** | **Altsasua** | **Amorebieta** | **Santurce** |
| **Plazentzi -Soraluze-** | **Eibar** | **Azpeitia** | **Zumaya** |
| **Oñati** | **Tolosa** | **Ernani** | **Donostia** |
| **Ormaiztegi** | **Pasai San Pedro** | **Zarautz** | **Iruña** |
| **Beasain** | **Errenderi** | **Sestao** | **Deba** |
| | | | **Anzuola** |

# II BERTSOLARI JAIALDIA OIARTZUNEN

## "INTXIXU" ANTZERKI TALDEAK ERATURIK

Lehenengo jaialdia egin genduela ez da denbora asko oraindik. Joan dan udazkenean zan. Eta gogoan degu egiaz saio hura zeñen gogozkoa izan zitzaigun guztioi.

Orduko bertsolari talde trebeak, hango jendetzak eta han sortu zan bertso-giroak berriz ere lanean jarrarazi gaituzte; berriz ere jaialdi bat eratzera behartu arazi, bertsolaritzaren onerako eta bertsozaleen atsegingarri.

a) BERTSOLARITZAREN ONERAKO: Ondo dakigu, herriaren aldetik eskaerik ez egonean, ez dagoela bertsolaririk. Guk lagundu ezean, ez da izango bat-bateko bertso sortzailerik. Arraiei ura bezelaxe, beharrezkoa zaie bertsolariei entzuleen inguru giroa.

Ondo dakigu, jakin ere, orain arte usadioz egiten diran saioekin ez dala aski bertsolaritzari behar diran sostengu ta bulkoa emateko; eta bide berriak billatu beharrean gaudela.

Eta gaur gaurkoz, herriz herri ikusten deguna ikusirik, bertsolariei laguntzeko biderik egokienetako bat hauxe degu; aukerako jaialdiak antolatzea. Horralako saioetan bertsolariak egokiera asko arkitzen dute; zaletasuna duten entzuleak; kanturako giro bereizia; gaiak nahiko pentsatuak; diru laguntza eta abar.

Hoiek horrela izanik, gure kultura maila hain beharrezko zaizkigun bertsolariei arnasa eman nahiz gatoz. Betidanik eta era askotara lagundu diote oiartzuarrek bertsolaritzari. Ta bide berriak billatzen ari geran garai hauetan hemen gera gu nundik mesede egingo gure herri kantariei.

b) BERTSO-ZALEEN ATSEGINGARRI: Asko ta asko dira gure artean bertsoekin gozaldi haundia hartzen dutenak. Asko baita ere, kantari sonatuenen entzun gogoa dutenak. Asko, koplakari famatuak txalotu-zale diranak. Eta bidezkoa iruditzen zaigu, bertsolarien onari ezezik, entzuleen atsegiñari ere begiratzea.

Hau dala-ta, jaialdi bete bat lortu nahiz, aurtengorako zortzi bertsolari ekarriko ditugu. Zortziak aukera-aukerakoak. Hoietako lau igaz aritu gabeak ditugu: Lasarte, Agirre, Lazkao-Txiki ta Gorrotxategi. Ta beste lau lehengo urtean aritutakoak. Zein baino zein, zortziak bertso lanean. Ta edozeiñek daki nolako jokoa eman dezaketen zortzi hauek jaialdi batean, elkarrekin kantuz hastean.

Gure aldetik saiatuko gera al-dan jaialdirik beteena prestatzen. Ta "Zuek" ere, Oiartzun-go ta inguruetako bertso zaleok, egin ahalegiñak erantzuten zuen kanta zahar zaletasuna azalduaz.

Gehiago oraindik: gure asmoa litzake urtero jaialdi bat egitea, urtero horrelako saioren bat antolatzea; urtetik urtera gauzak hobetuz. Ez goaz irabaziaren billa. Elburu bat bakarra da guk daukaguna: indar berritu bertsozko mundu ederra eta iraupena eman gure kulturak duan agerkizun arrigarrienari.

Ekainaren (Garagarrillaren) 6an. Goizeko 11 etan
Aurkezle: Xabier Lete
Bertsolariak: Xalbador, Uztapide, Lasarte, Agirre, Mitxelena, Gorrotxategi, Mattin, Lazkao Txiki
Gaijartzaille: Juan Mari Lekuona
(Lankideen Hauzo Aurrezki Kutxaren laguntzarekin)

INTXIXU

ERLOJU TA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Vergara, 11-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

Ez Merkenak
Bai Onenak!
Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.
FANDERIA
ERRENTERI

# Aita ILARIO OLAZARAN eta aren Txistu-Ikasbidea

*Aita Ilario Olazaran, kaputxinoa, oso aipagarri izan da Euskal Errian. Fraille izatea naikoa etzualarik, danbolintero sartu zitzaigun bere sasoirik ederrenean. Eta arrezkero, kontu egizu, txistuarekin ezkondu zala bere bizi guzirako.*

*Urteak aurrera, zoritxarreko gerratea gaiñeratu zitzaigun, eta Aita Ilario Euskal Erritik Txile aldera urrutiratu zan. Baiña txistua berarekin eraman zuan Inditarren artera. Mixiolari txistulari egin zan, beraz, Ameriketako bazter aietan.*

*Arritzekoa da, Nafarroa zaarreko Lizarran jaio; euskera ta txistua galduak diran lurretatik etorri ta gure fraille argia nola txoratu zan Txistuarekin. Ezta gaurko gure Aita Ilario. 1894 garren urtean jaioa, alajaiña. Eta kontuak kontu, Maiatzaren 24 ean, egundoko jaia egin diote bere errian txistulari lagunek eta bere erritarrek.*

*Marmol ederrezko arria jarri diote jaio zan etxe aurrean. Erriko alkateak gero, uriko urrezko izar bat eskeiñi dio bere bizi guziko lan goragarriagatik. Goiz goizetik, Lizarrako kaleetan barna, txistuaren eta Lizarrako zarrabete edo gaita-soiñuak biziro alaitu zuten aidea. Goizerdi aldean, erriko alkate dan Lanz Pinies jauna, Elizalde, foru-diputadu jauna ta beste Diputazioetako ordezkari ta txistulari talde aundiarekin abiatu zan jendea an Pedroko eliz nagusira bidean.*

*Itzaldia ta meza. Aita Ilariok eskerrak eman zizkien, gorazarrea antola zutenei eta bere izketaldia bukatzeko Asisko Prantzizko donearen Eguzki-Kanta irakurri zuan. Gure lizarratar fraille onen bizitza, izan ere, an Prantzizkorena bezela, izadiari eskeiñitako kantu etengabea izan da. Ameriketatik etxera biurtu zan ontzia Bartzelonara iritxi zanean, an zegoen Aita Ilario ontzi gaiñean, aurrekaldeko muturrean, txistuari soiñurik alaienak ateratzen.*

*Txistu eta zarrabete edo gaitaren artean ere, an baitago Jainkoa. Meza bukatu ta bereala, erriko plazan txistulari anaiak jo-aidi bikaiña eskeiñi zioten eguardia aide alaiz beteaz. An zeuden Zangotzako txistulari yayoak ere. Aita Ilariok biotzez agurtu zuan Luis Maria Bital jauna, Zangotzako Txistulari bikaiña:*

*—Euskal Eerriko txistularirik onenak zerate —esan zien kaputxinoak.*

*—oOo—*

*Pelota-lekuan, ondorengo ikuskizun ederra eman zuten Txistulariak. Zenbat ziran?... Ez gutxi ere. Aien ondoren, eun da berrogei ta amar dantzari inguruk, beren oiñak astindu zituzten dantza-jai zoragarrian.*



Aita Ilario gaztez inguraturik.

*Gero, nola ez?... Bazkaria bertan, arratsaldeko ordu bi t'erdiak aldean. Ba ziran bosteun bat bazkaldar pelota-lekuan. Aragia maaira atera zutenean, oitura zaarrak agintzen duanez, Baztandarren Biltzarreko txistulariak danbolin eta txistua jo zieten. Auek berak leentxoago Aita Ilariori Baztango arma-arridun txapela jarri zioten buruan.*

*Txistularien Elkartekoak jatordu barruan irakurri zuten gorazarre au egiteko artu zuten erabakia, ta erriko alkate jaunak goratu zuan eguneo giroa. Seiretarako an ziran berriro pelota lekuan txistulari guziak dantzariekin. Auek, azken gorazarre bezela, Baztango mutil dantza dantzatu zuten.*

*An ikusi genituan Lizarra, Iruiñe, Muskaria, Durango, Bermeo, Tolosa ta Gipuzkoako beste dantzari taldeak. Zer etzan an?... Albokariak, Txalaparta, txirula joilleak, aur txistulariak, guziak Aita Ilariori beren maitasun eta goramena eskeiñiaz.*

*Alkate jauna azkenengo, Aita Ilariori Lizarrako urrezko izarra jartzen. Ango giro beroa ez da adieraztekoa, sentitzekoa baizik.*

*«Agur jaunak» abestuaz, jaiari bere bukaera eman zitzaion, girorik anaikorrenean. «Zeruko Argia»k bere asieratik, Aita Ilarioren lanak ezagutzen zituan. Gaur, ezingo gera ixildu, onelako jai eder au aipatzean. Gure zorion agur beroa bijoakio, bada, Aita Ilariori!*

*Etxaniztar Nemesio*

## BERTSOLARI GAZTEEN ARTEKO LEIAKETA

# Juan Narbaitza, eibartar gaztea txapeldun

Maitzaren 16 garrena ta Errenteriako «Onbide» zinean, Gipuzkoako bertsolari gazteen arteko leiaketa. Jokatzen zan saria, XENPELAR AUNDIAREN oroimenez antolatua zan. Bide batez, Antonio Valverderen oroitza ere jaso nai zan. Onen semea tartean zan bilduen artean.

Ogei ta bat bertsolari gazte, agertu ziran jaiera. Poztekoa da au; ikusia baitago, bertsolariak puskatean gure artean izango ditugula. Gazte auek, geroko aidea poztuko dute, noski.

Nor nagusi aterako ta asi ziran beren saioak egiten, onena aukeratzeko. Ta orra Eibartik atera bear zuan denen gain geldituko zanak. JUAN NARBAITZA aurrean degu, bere garaipenaren pozez arpegia alaituta.

—Zenbat urte dituzu, Juan? —galdetzen diogu.

—Oraintxe nere ogei ta bi urteak betetzekotan nago.

Mutilla, Arrate aldetik jetxi da goizean-goiz. An degu «Eskaregi-Errota» izeneko baserria.

—Ni naiz anai-arreben artean gazteena —dio Narbaitza gazteak. Gorosta auzoko baserritar onen senitartea, bi seme ta alaba batek osatzen dute.

—Zuen etxean beste bertsolaririk iñoiz sortu al-zan?

—Ezta beiñere. Ni izan naiz bakarrik gure etxean bertsolari.

—Noiztik asi ziñan kantari?

—Jaio nintzanetik zerbait. Amazazpi urterekin batez ere asi nintzan beroago lan ontan.

—Iñungo txapelketetan agertu izan al-zera?

—Bai. Igaz, Deba aldeko bertsolarien artean agertu nintzan Mondragoen. Nerekin ziran Azpillaga, Gorrotxategi ta Egileor bertsolari yayoak ere. Gerora, erri askotako jaialdietan azaldu izan naiz or-emen. Datorren illaren 6an, Mallabian jokatzekoa naiz.

—Errenteriara etorri zeranean, nagusi gelditzeko usterik ba al-zenduan?

—Ez leenbizi, baiña saioak aurrera zijoazela, esperantza pizten joan zan. Leenbizi, ogei ta bat bertsolaritatik, amairu aukeratu zituzten jokatzen jarraitzeko. Ondoren zortzitik lau gelditu giñan azken-saioan jokatzeko. Azkenengo, Erramon Zabala nerekin jokatzeko gelditu zan. Etzan erreza izan aukera. Orrela etorri zait eskuetara txapela.

—Bapo, Juan! Eibar beti euskaldun izan da ta euskal-giroa dan errietan bertsolariak perretxikoak bezela sortzen dira. Eibarko euskerari parre egiten diotenak, ao-bete ortzekin geldituko ziran. Zorion!

——oOo——

Onela bukatu zan txapelketa. Antonio Valverderen alabak berak eman zion txapeldunari saria. Sari-gaillua ta 5.000 pezeta izan zan Narbaitzak jaso zuan saria.

Bertsolaritzan txapeldun eta eibartar batek irabazi. Au ezta egunero gertatzen dan opilla. Orain Eibarrek bere semeari gorazarre jator bat eskeiñi bear lioke. Ezta ala? Baietzean gaude.

*Amillaitz*

# ...ere erera baleibu icik subua aruaren...



## LIBURUAK

### LIBURU ZAHAR BAT

# PETAIN MAREXALA

Izen hortako liburu bat aipatu nai dugu. 1941 urtean agertua. Yomingo *Soubelet*, be-nafarra, Eskualduna astekariaren buruzagi izanak idatzia. 150 orrialde ditu *Petain Marechala* dolakoak, eta naiz apologia bat den, laudorioz betea osorik, zati intresgarriak ere baditu, eta euskera ederra ere. Liburu hau bazterreratua egon da denbora luzez, eta ezin da Liburutegietan Harkitu ere, pentsatzen al den bezala. Gu ezgara iñolaz ere auzi hortan sartuko, naiz garai bortitz hartan sakrifizio handitzat daukagun eta ez batere goxo, Petain batek herriaren kupidaz, kiderra artu izatea.

Aitzin-solasa bezalako Letra bat badu Mathieu apezpiku ezagun zenak emana, eta huna bere itzak Petainez; *...gure nagusiaren eleak girixtino eleak ote dira? Ene jakinean Petainek ezdu Jainkoaren izena behinere aipatu...* Hau ezta batere ados eldu, Petainek Errejimendu bateko buruzagiari esan zienarekin... *Jaunak kontseilu bat eman nahi dautzuet... zuen gizonen poltsua ezagutu nahi balinbadzue* (gerlan ziran) *behar dituzue bi horiek; apez-omoniera eta medikua.*

Beste aldi batez, Petainek esan zion Lurdeseko apezpikuari; *...nahi ukan dut Lurderat jin* (etorri) *Ama birjinaren otoiztera Frantziarentzat. Badu Franziak zeruko laguntzaren beharra...* Apezpiku Mathieu argi harek, agerian aurpegia emanez, gure gerla ondotik igesi joan euskaldunak lagundu zituen, eta bere hitz beroez, heken izpiritu eroriak altxatu eta sustatu.

Soubelet-en liburuan eskualdekatzeaz (regionalizacion) ele guti dugu arkitu; altabada, Petain-ek izan zukeän alde ona, hori zen, minoritateen mintzairak begiratu zituela, eta Eskoletan eskualdeko mintzairean, klaseak legez abiatu; uste dug eskuara gaizoari ere zerbait onik etorriko zitzaiola, bainan ardura handiko buru hortaz Soubelet ez dela geiegi axolatzen iduri du; doi oia Aitzin solasean aitameri bi hitz labur.

Petainen goraberak kondatzen ditu, gerlakoak bereziki eta haren mintzaldi eta agindu bargarriak. Franzia mehatxatzen duen anaiarteko gerla aipatuz, dio liburuak; *...Sinesteak, gazteriak eta sakrifiziok dute Espainia salbatu.*—Langileetaz dio: *...Bardin obendun dira dirudun berekoi itsuak... Ditakeen mutilgorik tzarrena nahi dut kendu, diruaren mutilgoa... Batzu gabezian direlarik ezditut bertze batzu, aberats okitu ikusi nahi... Ez ditzazket gogotigal langile gaizoak... Langilek zer dute nahi?—Ezdu onartzen laneko tresna baten pare ikusia izaitea; nahi du nagusiak ikus dezan, gizon gisa, gizon bihozduna jakitatearen jabe dena eta sofritzen dakiena.*

*Beren lantegiako gora-beheretan ere parte hartu nahi dute, segurtamen zerbait bildu, zahartzen edo eritzen direneko... eta ohorezki bizia irabazi.* Bestalde, Petainek desegin ditu politikako batasunak; poliza-gizonek indar eta botere gehiago ukanen dute, bai eta Profetek ere.

*Lehengo mendetan,* segitzen du Petainek liburu hortan, *bi gizon arraza baziren, batzu laneko, bertzeak lanik gabe bizitzeko. Girixtino* (kristau) *legeak du adiarazi, denek behar dutela langile izan, nehor ezdela lanik egin gabe egon behar.*

Eskolaz hitz gogoetagarriak irakurtzen ditugu: nahiz eskola bakarra, gezurrezko eskola dela, dion; eta berehala... *Eskola bakarra nahi dugu* (p. 134); ez da ongi ulertzen; baiña gero dio Soubeletek... *Azken xedea, huntan da guzia; errientek* (maisuek) *eta apezek elgar adi dezaten, Alemaniako presundegietan, apezek eta errientek elgar aditzen duten bezala.*

Gaia beraz kontseilu onek ematen ditu Petainek: *...Aski dela haurren eskolatzea haurren moldatzeko* (edukatzeko) *uste izaitea, sineste makurra da.—Bihotza ezdoa bere baitarik ongiari... hortaratzekotz, behar du gizonak esku azkarrez moldatua izan.—Aitamek badakite, ez ditakela haurrik ontsa altxa, larderiarekin familian altxatua ezbada. Eta etxeko larderia bera behar du eskolan kausitu; hala bakarrik dira jende azkarrak moldatzen.*

Eskoletan haurrek ikasiko dute presunen errespetua eta harekin batean, familia, sozietatea eta Herria maitatzen. Ez da Eskola neutra izanen; ezdira saltsa berean ezartzen ahal, egia eta gezurra, ongia eta tzarkeria, ordena eta desordena.

Eskoletan haurrek ikasiko dituzte orai artino bezala, frantsesa, kalkuloa eta Frantziako hixtorioa, bainan *esku-lana* ere ikasiko dute; nehor ezda ahalke izanen, luma ibili ondoan, laneko tresnen ibiltzeko.

Hunaraino Petainen kontseiluak, Eskolari buruz.

*A. Irigaray*

# ERRENTERIA

**Ekainak, 7**
**Arratseko 8 etan**
**EREINTZAK ETA IZTIETAKO ELIZA BATZORDEAK AURKEZTUKO DUTE**
**«jai berria eztabaidan»**
**Festa giroan sartuaz...**
**— MIKEL LABOA, herriaren abeslari.**
**B. Brechten zenbait poemak bersortuko ditu.**
**Bere bereak ere agertuko ditu.**
**— A. LABAYENek, Duerremat egilearen GIZONA TA KIDEA, antzerki lana aurkeztuko digu.**
**— PATXI LARREAREN zuzendaripean GIZONA TA KIDEA JOLASTUKO DA.**
**Ondorengo elkarizketan ENTZULEOK HITZAREN JABE EGINGO GARA.**
**«festa ez da berez egoera baten zutabe: ezpataren antzo, gorde ala ebai dezake. Gure tarte hartzearen esanahian datza festaren indarra. Aldaketa festa baino areago dijoa, baina aldaketarik ezin sor diteke festari buruzko jokabide bat gabe».**
**TOKIA; Iztietako Elizapean.**
**Sarreraik gabe, nor bere eskuetan utziko da festaren balioa neurtzen.**

**Ekainak, 15**
**Arratseko 8,30-etan**
**EREINTZA ETA IZTIETAKO ELIZA BATZORDEA**
**P. Larzabalen BORDAXURI.**
**S. OLASKOAGAREN ZUZENDARIPEAN antzestuko da.**
**Lanean: Ereintzako taldea.**
**Jai aldi hau Iztietako Elizaren alde egingo da.**
**TOKIA: Iztietako Elizan.**

**Ereintzak**

# josé antonio sistiaga

*(1'gn orrialdean asiera)*

*—Hire filma realista, sobera realista, zientifikoa izateraino juzka leikek.*

—SISTIAGA. Bai, nik gogoko dizkiat fisika eta biologia.

*—Donostiarra haiz, euskalduna, hire filma hori euskal artea dela eta euskal artista batek egina aitor ahal dezakek?*

—SISTIAGA. Bai, ba zitekek, baina pertsona bakar baten filma duk, halaz ere beste zenbait euskaldun akor izanen dituk nire filma honekin. Nire filma, berresanen diat, bilaketa bat duk eta egungo konsumozko gizarte hontatik at zegok. Nire ekintza hau natura berarena izan zitekek; eta baldin euskaldun banaiz eta Euskal Herriko naturakide banaiz, nire artegintza ere euskalduna duk.

*—Filma hau duk, hire lehengo artegintzaren burutze bat ala hire aldi berri baten primezia?*

—SISTIAGA. Primezia bat dela esanen nikek, zeren filma honen lehen bersioak anekdota alderdi bat zian, baina anekdota hau estatikoa izanik baztertu egin diat, dinamika alderdiari ekiteko. Espresio, agerpen berri baten beharra nian, eta honetarako zinema aukeratu diat. Zeren zinema mugimendua duk eta agian musika, errealitatetik hurbilago zebilek gainera.

*—Euskal Herriari, zer adierazten ziok filma honek?*

—SISTIAGA. Bazekiat nire filma bitxi estrainio bat dela. Baina, agian, betiko leloa duk hori. Euskaldunak ez dik gaurkoz, haurrak halatsu, nor bera izateko ahalik eta eziketa artistiko baten beharrean arkitzen duk. Egun irakasten zaien pedagogiaz, bata bestearen aurka joaten ohitzen dituk, berekoi eta bakarti izan araziaz. Nire filmaren bidez askatasuna eta maitasuna aldarrikatzen dizkiat. Beraz, filma hau zenbaitentzat jolas, besterentzat aspergarri edo ikusmira bat izanen duk, baina halaz ere interesgarri izanen uke Euskal Herriaren zehar euskaldunen erantzuna jasotzea.

*—Haurretaz diok... hire filma arrunta eta zertxo bat primitiboa iruditu zaidak, jatorraren jatorra agertu diguk.*

—SISTIAGA. Bai ni jatorrizko bekatutik at jarri nauk edo agian Kristoren manamenduari jarraitzen zioat: «Haur bezala egin behar duzue». Erabat askaturik, ezen trabarik onartu barik, artegintza libro bat lortzen saiatzen nauk. Lanaren zehar aurkitzen diat nire sorketaren araua; umeak ere honela jarduten diate. Egintza eta gogoeta, batera zebiltzak umearengan. Eta halaber niregan gogoeta lan eta lana gogoeta trokatzen duk.

*—Hamazazpi hilabetez izorra egon haiz, eta aizkenean hire haurra argitarat emanik duk, baina haur hau ez ote duk zurtz bilakatuko?*

—SISTIAGA. Nire umea egina diat eta dagoeneko bazterturik diat. Berak, ez hotz eta ez bero, ez nauk uzten. Niretzat historia bihurtu duk. Noski, oraindik ere, biziro arreta haundiz jarraitzen diat bere bidea, baina beste maila batean (adi bidez, eta tabernetako hormetan txartelak erastean, gizartearen giro berri bat uxartzen diat). Gibelerat begiratzea mesedegarri zitekek, baina orain geroa zaidak ardura eta nire ondorengo obraz nabilek borrokan.

Sistiagak gauza asko du oraindik bere filma eta obraz esateko, baina hemen amaitzen da gure solasa. Sistiagaren filmak paperean eta hitzez aditzerat ezin eman, hainbeste esan nahi sortzen du, beraz, onena, zinemarat joatea duzu. Sistiagak galdera bat egiten du bere filman, ene baitan funtsezko galdera, zoaz beraz ihardestera. Geroak kezkatzen du Sistiaga eta hor doa itsasoari, lainoari, harriari, herriari... zuri galdezka. Galdera ezin bestekoa du, zeren bera ere galdera bat duzu.

*Luis Haranburu-Altuna*






## eskoriatza

Ayalde zanaren gogorapenez Errenterian izan barria dan bertsolarien norgeiagora geure gazte bi aurkeztu zirian: Joxe Erramon Beitia eta Xabier S. Migel.

Lelengo saririk lortu ez eben arren, guztiz ederto jardun ziriala biak entzun dot. Zorionak, bada. Eta beste batian garaille etorko zariele badakit.

Aurrera beti!

—oOo—

Urtian urtian legez, aurten be geure umiak erria poztu ta alaitu doskue euren Lelengo Jaunartzia dalata.

Zorionik biotzekuenak eurei eta euren gurasoei.

—oOo—

Erri ontan neurri gogor bi artu biar direzala uste dogu bakian biziko ba-gara.

Bata, erri barruan belbillei astirotxuago ibillteko agindu zorrotz bat emon eta ez edozelan ganera, zigor astun baten menpean baiño. Ostantzian, gitxien uste dogunian zoritxar aundiren bat izateko zorian gagoz.

Bigarrena, barriz, gazteei entzuten jakien berbeta loi eta zantarra. Orrelakorik ez da egundo geure errian entzun izan. Lotsatzeraiñokoa deritxagu. Erdi birautik asi eta itzik zikiñenak parra-parra esaten dabez edonoren aurrian.

Agintariei zorrotz jokatzeko eskatzen dotset.

Alper negar mingots bat ez daigula izan.

—oOo—

Maiatzaren 16 garrenez, beti, igandean igandean legez, Arantzazuko Meza ederra entzun gura ta, jezarri giñan eskaratzeko zokotxuan eta kale egin euskuen!!

Irungo beste eleiza batetik erderazko Mezia zabaldu ez euskuen ba! Emendik eskatzen deutset Pasionistiei ez geuri ostuteko gero geure igandeeroko Arantzazuko Erri Meza. Santa Gema aundia izango da baiña geuk gurago doguz betiko Mezak: Loyolakoa bederatzietan egunero eta Arantzazukoa amar terdietan igandero.

—oOo—

Iparragirre Jaunaren «Idiazabal» liburua ikusi barribarria dot. Azaletik baiño ez ordia. Izan be gaurko Idiazabalentzat liburu orrek euskerazkua izan biar ebala argi argi dago.

Euskeraren maitasunak eta erriaren begirapenak alan eskatzen dabela uste dogu.

*Aitxorrotx*

## bermeo

**ITSASOTIK**

**Portu onen ikupean amabi itxas ontzi barriakaz geitu dabe gure kaya. Euron izenak eta langintzak bisigu eta lebatzetarako: "Maria Leporre". "Capricho Moruno". "Gure Arantza". "Abasolo". "Otz Arri", eta "Zuberoa".**

**Atun eta bokart zaleak: "Ondartzape". "Zeruko Argia", eta "Gure Cita". Kongeladore deituten deutsenak: "Beti Alai" eta "Alfanaque". Onetara geratuten dira lebatz zaleak, askoz be geiago, ontzi andiaren ganetik.**

**ESKONTZAK**

**"Gaceta del Norte"-ko berri emaille dan Jose Ugalde-ren alaba Maite ezkondu da Iñaki Borda, Busturitar gazte jatorragaz, Lekeitio-ko Bilbao diru etxeko ordezkari bizkorragaz. Ezkontza au, Almikako Amaren eliza politean izan zan. Oturantz edo jatekoa Mundakako "Casino" deritxon tokian. Ezkontza ibillerak amaitu ondoren Lekeition biziko dira.**

**—Pablo Arketaren alaba Amaya ezkondu ba Juan Ramon Bustindui, "San Cristobal" arraiñ ontziko lemazaiñ gazteagaz. Ezkontza Bermeoko "Santa Maria" deritxon eliza nagusian izan dabe.**

**Eztegu oturuntza "Casa Vasca" Deustukoan. Ezkontza ibillerak Euskal Erritik at atxerri aldean izango dabe.**

**Amaya Arketa, Nueva Yorken jaioa da. Leenengo Gure Jauna artzea eta ezkontzea be, emeko eliza nogusian izan eban.**

**—Urbia mendi zoragarrian dagon bazeliz politean, eta bai Demikuko ingiruan dagon basatxonutxu ikusgarrian, ezkondu dira gure erritar neskamutil gazte mendizaleak. Kementsuak zubek. Ori da yasa, agertuteko Euskotasuna, biotzetik oiñera. Lau senide barri orreri nere zorionik zintzoenak.**

**ERIOTZA**

**Aldi luzean geixo zamar egon ondoren, Julian Pagazaurtundua Solaun, Arakaldotar gizon ongille de biozkorra il da. Bere illobirantzean, azken jauregirarte, ostetza andiak lagundu eutson.**

**Julian, Forala, bere bizitza guztian iñori on egitea izan eben. Bizkaiko Aurrezki Kutxan lan egite eben zuzendari, eta bere laguntza bide, Bermeoko atsotxu ta aguretxu geienak zaartzaro diru saria artuten dabe.**

**Ia, zure gogo zerutarragaz, iñor gomutaten dan. Ni bai beintzat guztidunari otoitz bide, zuretzako, adiskide ona. Eskatuko deutsat Al-Azken Aberriko Bake Donea. Iñok merezi badau i, az, ori.**

**OMEN ALDIA IZARRAN**

**Aita Olazaran eresilari andiari, opa eutsoen omen aldia dala ta, Euskal Erriko uri askotatik, eundaka txistulari eta laguntzaile batu ziran leengo igandean Izarra erri zaar ta politean. Bermeoko txistulari gaztetxuak be, an izan dira, maixu andi oni euron itzala agertuten.**

**Ondo juan ziran eta poz pozik etorri etxera.**

**DABILTZAZANAK**

**Aberritik urrun, amairu urte luze egin ondoren, Australiako Melbourne uri ederrean, etxeratu da aita-amari ikertalditxo bat egitera etorrita Joseba Urkidi Bilbao eta bere emazte liraiña. Laster, barriro be, arantza joateko asmotan dabiltzaz. Ostera on bat egin. Obeto bizi eta Kurtziotarrakaz ez aaztu.**

**Atzerrietako lan ogia**
**Gozoia baiña latzagoa...**

**EUBAKO EUSKO JAYA**

**Aspaldiko urteetan ospatuten dabe Eubako Pasionistak daukoen ikastoletan Eusko jai politak. Txistularientzako: Olerkarientzako eta. Abeslarientzako be. Aundi eta gazteentzako. Gure erritan LUPE neskatotxua izan da garaille bakar abestian. Ansola, Markiñarra txistuan eta Zaldibarko "Gau Txoriak" taldeetan. Gure Urretxindorraren kumetxu Enbeitak euki eben zer esanik asko. Zoritxarrez, euri eta aize otzak kendu eutson alaitasuna jaiari. Ia datorren urtean.**

**Urkidi**

## ixurtza

*BARRI ON BATZUK*

*Iru jaiotza euki doguz gure errian.*

*Bitañon bata. Anjel Intxausti eta M. Karmenen alaba.* Miren-Zuriñe *izenagaz bateatu dabe.*

*Sakristau-etxean beste bat. Jabier Azkarraga eta M. Pazen semea. Xabier izena ipini deutsie. Zorionak gurasoei.*

*Baita «Etxebarri» deritxon baserri-etxean be jaio da mutiltxo bat, Damian Garate eta Mertxe Totorikaguena senar-emazte zoriontsuen zazpigarren semea. Zorionik beroenak aurentzako.*

*Datorren larunbatean, maiatzeko ogeita bederatzian, Ixurtzako Nikolas Deunaren elizan ezkonduko dira Edurne Agirre Ixurtzakue eta Abadiñoko Anjel Billa, eberdiko ordu batetan. Ixurtzako koruek abestuko dau mezan. «Zorionak».*

*M-Garbiñe A*

## zumarraga

*ZORIONA*

*Seaskatik, zorion egarri agertzen zaigu gizakia, ta bere bizitzako ekintza guztiak amets au izango dute oiñarri. Benetako zoriona Kristauentzat bat da, baiña senide asko dira gizakiaren aurrean agertzen diranak guztiz lirain eta lillugarri.*

*Zorion egokia izan diteke, adibidez; Sendi guraso bat, eguna lanpeturik igaro ondoen, etxeratu ta sendi kabi epelean, Z.A. begiztatu, asteroko ontan idazten duten idazleen lanak, bere barruan ontzat artu, eta bere barruan egosi ondoren, lagunartean ezdabaidatuaz. (Gose nintzan da jaten eman zenidan, egarri nintzan, ta edaten eman zenidan).*

*Agian, zorion urratsetan doaz, Z.A.'ko (Euskal errietatik) sailla osatzen duten idazle otxanak, gorputzak eskatzen duen atsedena alde bat utzi, ta, gau ta gauerdi, or ta emen biltzen dituzte berri loretxoakin xorta eginik, Z.A.-ko irakurleei asteoro eskeniaz.*

*Arrigarri egiten zaigu benetan, idazle apal auek egiten duten lana, gure uste apalean, auek dira, Euskal errietako argi-mutillak, eta Euskal esnaleak.*

*Beren barruan daukaten karobi biziaren su garrarekin nai dute urtu inguruan dauzkaten izotz-mendiak. Alde guztietatik zigortuak, eskertxarrarekin ordainduak. Berri emaille lantegia beren gain artzean, aukeratu zuten elburu bat, eta or doa, itsaso amorratuan, ekaitzen bildurgabe, mezulari trebe auen ontzia, itxaropen izar argia dute gidari, ta egintza onak sortzen duten zorionaren aize epela lagun. AUPA MUTILLAK!!*

*Gaurko gure inguruko gizarteak buru auste aundiak ditu, ta auetatik batzuek erriak ezagutzen ditu, besta batzuek ez.*

*Gure inguruan bizi dira euskal idazle trebeak, eta ikusirik gure inguruan dagoen beste buru auste, ez ote da ordua, goitik artu dezuten (talentu) orri etekiña ateratzeko, lumarekin. Egosi eziñik ez eduki barruan.*

*Azkarraga*

## pasai donibane

UDALETXEA

Oso bilera interesgarriak izan ditugu, azkenengo bi hilabete hauetan, herriko udaletxean.

Motiboa: herriko jaiak nola antolatu.

Udaletxekoek herriko elkarte edo soziedade denei deitu zieten festatako komite bat eratu eta festak antolatzearren.

Bai udaletxekoengan, bai elkartekoengan borondate ona ikusi da, eta elkar hizketa interesgarriek eduki dira. Nere ustez hareman hauek bide onetik joan dira.

Baina, hala ta guziz ere, nik ikusi ahal izan ditudan zenbait hutsune aipatzea beharrezkoa iruditzen zait.

Hona hemen batzuk:

—Komitea sortu edo egin da, baina ez festak antolatzeko, zenbait festa antolatzeko baizik. Behar beharrezkoa iruditzen zait festa-komite horri eskubide denak ematea. Festak nola egin behar diren erabakitzeko eskubidea ematea.

—Elkarte denak ez dute behar bezela erantzun. Benetan erantzun duten elkarteak bi bakarrik izan direla esango nuke. Asko, azken egunetan bakarrik azaldu dira. Eta azaldu diranean dirua lortzearren izan da, ez beren iritziak eta laguntza eskeintzearren.

Dena dela garrantzi haundikoak izan dira harreman hauk.

Funtsezkoa da herriak udaletxean parte hartzea. Baina ez festa burutan bakarrik. Ba dago problema haundiagorik!!

HITZALDIAK

Donibane elkarteak eratuta bost hitzaldi eman dira «aterpea» lokaletan maiatzeko 24etik 30era bitartean.

Hizlariak sexualitate, dibersio eta giza eskubideei buruz mintzatu dira

Jendea etzegoen gustora, neskak batipat. Izan ere hitzaldiak mutillentzako omen ziren, hobeto esan, gau-eskolan ibiltzen diren eta ibili izan direnentzako.

Herria era honetako hitzaldien beharrean arkitzen da. Eta nola diteke behar hau ikusita mutilentzako bakarrik jartzea!

Neska batek honela zidan: Hik uste ahal duk hontarako eskubiderik badagoela. Mutilak eta neskak nahasteko bildurra ahal daukate? Nun gelditzen gera emakumeok? Nun gure promozioa? Eta hau dena hogeigarren gizaldian!!!

HERIOTZA

Ezbehar baten ondoren Juanito Arbena «Tximista» hil zaigu. Itsasora irten zan eta han gelditu zaigu. Itsasoak harrapatu dio bere hemengo bizitza.

Gure samintasun beroena bere emazte eta seme-alabei, batez ere gure adiskide diren Migel eta Josetxori.

Goian bego.

*Kepa*

## aizarna

**Maiatzaren 20 an, Igokunde jaia, GAZTERIAREN EGUNA ospatu dugu aal bezain aundikiro. Iru zati nagusitan bana diteke JAIALDIA:**

**GAZTEEN MEZA**

**Gazteori atsegiña gertatu zaigu. Gure-gurea izan dala esan bear. Obeak ere egin izan ditugu, noski. Itzaldian esan zaigunak, alde batetik poz eman digu: erriko gazte geienok elkartu eta lanean bildu geralako, zorionak eman bait dizkigu. Zorionak, diru-truk ez dalarik eta askotan geuron dirua galduaz ere aurrera egin dugulako.**

**Bestetik, orde, kezka aundi bat utzi digu: ori egiten duan gazteriak badezakeela geiagorik ere; kristau geranez, Jesus Zeruratuagan sinisten dugunok, gero-eta geiago leiatu bear dugula, alegia, diruz erosten ez diran ondasunen billa. Ortan ditugu komeriak!**

**TXIRRINDULARIAK**

**Txirrindularien "Aizarna'ko 1'go Sariketa", ogei ta amar gaztetxo "Bakarkako Neurketan". Egin duten bidea, 17 kilometrokoa: Azpeitiako enparantzatik irten eta Aizarnako Santa Engrazira. Ikustekoa zan txirrindularien joa eta leia. LARRINAGA bizkaitarrak eraman 1go Saria bai dirutan eta 1go kopa, "Loyola" txokolateena. Bigarren, J.I. Arranz gipuzkoarra: 2gn saria eta Tomas BITARTEren kopa. Ondoren: Albisu, Martinez, Padrones, Arranz P.M., Mayoz, Ortiz, Iribarren, Undabarrena, Gomez, Agote, e.a.**

**Oietaz gaiñera ere banatu zaizkie Aizarnako enparantzan beste sari batzuk: Aurrezki-Kutxa probintzialarena, ONENAK muebleetxearena, Aizarnako gazteena. Jendetza aundia bildu da Aizarnan. Arritzekoa izan da jendearen laguntzeko gogoa: ainbeste motozale ta ainbeste berebildun, danak elkarren leian, beren ardura eta babesa eskeintzen. Ez da bereala aaztuko egun au. Pozik ditezke Azpeitiako "Lagun-Onak" taldekoak eta pozik gindezke Aizarnako gazteok ere.**

**ANTZERKIA**

**Alfonso Sastreren antzerki bat, "Denok ixildu egiten gera" izenburu-pean, euskeraz eman digute. Asteasuko KUKUTE taldeak eman ere Talde jatorra, gaztea, saiatua, artetsua. Gudagaraiko eta ondorengo gertaerak arrotzen ditu idazle madrildarrak.**

**Egoki antzestu dute gure bixitariek. Atsegiñen gerta zaigun gauzetako bat, askok esaten dutenez beintzat: "Bai garbi itzegiten zutela! Dana ulertzen genien". Txalo ederrik jo diegu ikusleok eta guzia zor zitzaien.**

**GAZTEEN "PARROKI-BILTOKIA"**

**Apaizetxe zabal bikaiñaren bee--barruan "biltoki" bat antolotu dute bertako zenbait gaztek. Zoragarri ipiñi ere! Oraindik bukatzeke dago, txurrut egiteko gela bakarrik dago osoro tajutua. Billerak egiteko gela eta irakur-gela ere ez dauzkate aaztuta, amets egiten duten bezain egoki apaindu ez badituzte ere oraindik. Mesede galanta egin bear dio erriko gazteriari biltoki orrek! Biltzeko, elkarrekin egoteko, ikasteko, buruak argitzeko, e.a. Uste gabeko ez-bear batzuk dirala-bide, gaur oraindik itxita dago, gazteriaren garrak barrua noiz argituko dion zai-zai.**

**Ergoin'ek**

## azkoitia

**UROLA HIBAIA**

**Garbitua izan zen bai, ta orduan azaldu genduan gure poza. Orain ordea badegu kezka bat, zeren alegia hasitako lana, ez ote dan behar bezala bukatu.**

**Hibaiari beheko zikin ta zenbait harri kentzen zijoazten neurrian, alboko horma zaharrak ere ahul da indar gabe gelditzen joan ziran ta hau neguko ur haunditzeak garbi erakutsi digu.**

**Orain zati bat edo beste erori bada urrengoan gehiago izango dira ta azkenean lehen baino zikiñago gelditukо zaigu hibai guzia.**

**Akats hau lehen bai lehen zuzendua izan dedin, hemendik bialtzen degu gure eskabidea.**

**ATZERAPENAK**

**Maiatzaren 23 garrenerako bazegoen gauza ugari ontolatuta gure herrian, baina eguraldi txarra bitarteko zela, ezin bete izan ziran asmo guziak. Horrela, Anaitasuna mendi bazkunak atzeratu beharra izan du umeentzako IVgarren ibil--aldi neurtua ta berdin egin dute luistarrek euren Urrategiko igo--aldiarekin.**

**Datorren hila hobea izango den itxaropenarekin gelditzen gera.**

**"Kakute"**

MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA
Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)
Avda. de Francia, 1
— I R U N —

Baserriaren alde
EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros
Municipal de San Sebastián

Banen baneko aziyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Torrelavega'ko Perira joan

Baserri, lur-tresnak ta abar eterriak

## eibar

*PELI ALDAZABAL ZENAREN OROIMENEZ IX GARREN EUSKARA LEHIAKETA*

*Eguraldi eskasa zen Arraten hilaren 23an. Ohi denez beharko dugu esan, aspaldiko urtetan ez baitigu honako egun honek besterik eskaini. Hala ere, euri ufala eta guzti, ume mordoxka bat bildu zen goizeko hamar terdietan Arrateko ermittaren atarian, eta umeak ezezik, Eibar Club Deportivoko «Kezka» Dantzari Taldea, andereñoak, gurasoak, senideak, adiskideak eta gainontzekoak.*

*Guztiz, Gipuzkoa nahiz Bizkaiko berrogeita zazpi ume agertu ziren lehiaketa orduan, alegia, Ataun, Zaldibia, Legazpia, Lazkao, Elgoibar, Eibar, Ermua eta Bilbokoak. Andoni Idoyagaren zuzendaritzaren pean, mahaikoek Libe Sarasua, Karmele Mandiola, Margarita Murgizu, Jose Luis Ugarteburu, Luis Alberto Aranberri, Imanol Larrañaga eta Serafin Basauri zirelarik, irakurketa, idazketa eta gramatikari buruzko lehiaketa prestatu zen, umeak bi taldetan banatuta. Hona hemen talde bakoitzeko lehen hamarrak:*

*Nagusien taldea (11-14 urtekoentzat).*

*—1en. Asier Etxeberria. Elgoibartarra. 14 urte. 42,5 puntu. Txapela, Eibarko Udalak eskainitako irudia, 2.500,— pta. eta saria.*

*—2gn. Patxi Xabier Basterrika. Ataundarra. 12 urte. 40,5 puntu. Txapela 1.500,— pta. eta saria.*

*—3gn. M.ª Dolores Etxeberria. Zaldibiarra. 13 urte. 40 puntu. 1.000 pta. eta saria.*

*—4gn. Odile Kruzeta. Eibartarra. 13 urte. 38 puntu. 500,— pta. eta saria.*

*—5gn. Yosune Beldarrain. Bilbotarra. 12 urte. 33 puntu. 500,— pta. eta saria.*

*—6gn. Begoña Biar. Bilbotarra. 13 urte. 27 puntu. 500,— pta. eta saria.*

*—7gn. Begoña Basterretxea. Bilbotarra. 11 urte. 25 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*—8gn. Amaya Mujika. Bilbotarra. 12 urte. 24,5 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*—Nekane Aranburu. Bilbotarra. 13 urte. 24,5 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*—10gn. Yoseba Andoni Beldarrain. Bilbotarra. 11 urte. 24 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*Txikien taldea (7-10 urtekoentzat).*

*—1en. Asier Laspiur. Eibartarra. 10 urte. 28,5 puntu. Txapela, Udalak eskainitako irudia, 1.500,— pta. eta saria.*

*—2gn. Agurtzane Garzia. Elgoibartarra. 8 urte. 25 puntu. Txapela, 1.000,— pta. eta saria.*

*—3gn. Miren L. Urzelay. Legazpiarra. 9 urte. 24,5 puntu. 500,— pta. eta saria.*

*—4gn. Yon Iriondo. Elgoibartarra. 8 urte. 23,5 puntu. 500,— pta. eta saria.*

*—5gn. Itziar Beldarrain. Bilbotarra. 9 urte. 22,5 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*—Iñaki Arkarazu. Lazkaoarra. 10 urte. 22,5 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*—M.ª Lourdes Peñalba. Elgoibartarra. 9 urte. 22,5 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*—8gn. Elisabet Kruzeta. Eibartarra. 8 urte. 21,5 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*—9gn. Victor Alberdi. Elgoibartarra. 8 urte. 21 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*—10gn. Arantza Gorosabel. Elgoibartarra. 8 urte. 20 puntu. 100,— pta. eta saria.*

*Bataz beste, oso maila oneko lehiaketa izan dugu bederatzigarren hau. Umeak primeran prestatuak etorri zaizkigu. Guztiok merezi dute txalo beroena. Behar bada, ikastolaren bat bereiztu behar badugu, ezin dezakegu hemen elgoibartarrak aipatzeke utzi. Zorion sutsuenak nagusitxoei, umeei eta ezkutuan lanean ari diren guraso eta andereñoei.*

*Datorren urtean ikusiko dugu elkar Arraten. Ez etsi gazteok. Kontu izan datorren urtean bizikleta bana irabaziko dutela lehen ateratzen direnek. Datorren urte arte bada. Ea eguzkiari ere gutun bat egiten diozuen bera ere etor dakigun. Bai ote?*

*Amatiño*

## baztan

**BERTSOLARIAK**

**Erran bezala joan den Maiatzaren 16 ean bertsolari festa eder bat izan ginuen Elizondon. Antxitoneko Trinketea euskaldun jendez betea zagon, han baziren baztandarrak, ultzamarrak, bidasotarrak, gipuzkoar jatorrak eta bai mugaz-bertzaldeko anaiak ere, denak bertsolari bestara etorriak eta denak atsegiñez beterik beren bozkarioa nabari zutela.**

**Mattin aheztarra, Lasarte leitzarra (orain Oriotarra), Lazkao-Txiki lazkaotarra, eta Agirre azpeitiarra, lau koblari lelenbiziko maillakoak eta hoien artean gure herriko bertsolari Klemente.**

**Besta izigarri ederra izandu zen eta erabilitako gaiak ere aski onak eta bazutela nondik lotu, bertsolariek gatza ta piperra eman ziotelarik. Han entzun genituen Mattin eta Lazkaoren bertso yostakinak eta Agirre ta Lasarteren bertso mamitsuak ere, denak ongi emanak eta denak yendearen gogokoak. Kantaldiaren asieran lau bertsolariek bertso bana kantatu zuten Andres Narbarte zenaren omenez. Bertso hunkigarriak bai gure koblariek beren lagun zenari eskeiñi zizkiotenak.**

**Entzuleek loriaturik esku-zarta ta txalo beroekin erakutsi zuten beren poza ta atsegiña. 400 entzule denen artean eztago gaizki, bertsolari besta batera biltzen direnak denak behar baitute euskaldun garbiak izan; besta hau ezpaita pilota fubol edo beste yostetak bezala, ikusliarrak berdin izan daizkela euskeraz dakitenak nola ez dakitenak edo berdin izan daizkela Pariskoak nola Zienpozueloskoak. Gure besta maitagarri hori euskaldunentzat bakar bakarrik egina da. Entzuleen artean beste urtetan baino yende gazte gehiago ikusi dugu eta aunitz mutiko ta neskatxa ere hoien artean. Horrek aunitz poztu gaitu, gaztetan baitago gure etorkizunaren itxaropena ta esperantza. Ikusi genituen gutienetik hamar edo hamabi "magnetofon" eta orain maxina hoiek hartu dutena bazter guzietara barraiatuko da eta badakigu ere batek baiño gehiago Kaliforniara igorri beharra dutela.**

**Gure goresmen bizienak bertsolariei. Ederki motellak eta gure Yaunak urte aunitzez kontserba zaitzatela. Biba zuek! Eskerrak ere entzule guzieri eta yarraiki zuen zaletasun bizi hortan Bestaren irabaziak Elizondoko Ikastolarako izan dira.**

**M. Izeta**

## zornotza-etxano

ORREIK IRU ADISKIDEAK

Naiko zirikatualdi daudela-ta luzarotxoan itxaron dot pentsaurik usterik gitxienean erantzun gogor bati eutsi bearrean aurkituko nintzalakoan begira.

Erantzun ori ezta agertu; bear bada astinaldi sakonago bat bear dabe zerbait irrituta ikusi nai baditugu.

Baiña badabiz zeozer asmatu gurean. Zarataka izan ezien berbetan ez dakien legez, begiratu zelan datozen, neu billa ibilli barik, berri beroak nire belarrietara: Leengo baten (garai ortan munduan badira be eneuken euren gomuten berririk) sartu naiz «Nezkenera» eta nun dagozan bastartxo baten alkarizketa bizian iru adizkideak eta Santi. Ona emen gitxigorabeera eztabaida orren mamitsuena:

Ujuniok: «Zertarako erantzun; orreri onena dok jaramonik ez egin; berez-berez aspertuko dok eta».

Tenplek: «Beti gugaz sartu barik beste batzuk gaitik be ekin deiola; or dagoz Lopez eta Ulajio be bapere ikutu barik».

Txatuak: «Joxemari! Bakean dagoenari bakean laga; ori oitura ederra dok».

Alako baten Santi zutundu da eta badiño: «Guzurra dala dirudik, etxakiat zertarako dozubezan orreik jakituri danak gizon bati bear dan legez erantzuteko gauza espazare. Zuben, apaiztegi, Valladolid eta Orduñako ikastetxe garestienean igaroko urteak alperrikoak dozak ala? Nirekin eztok sartu eta beretzat obe bestela oraindik jakin deiela, gizon orrek, astinaldi eder bat artu barik etzala gelditukoʼ».

Ori!... Ori! Santi. A zelako kiñekadea! Valladolid edo Salamankatik pasa baziñe...! Zeozegaitik zugaz enaiz sartu.

Bakea nai badabe ni enago orren aurka. Ujuniok kaxula bi makallau gertatu deiela eta janez-janez izenpetuko dogu bake ori. Zer deritxozu, Santi?

ARRATOIAK ERRIAN NAGUSI

Baneuken entzutea ortik «Venecia» eta parke aldetik, arratoiak, ardiak larran bezela nasai eta lasai zebizela. Esaera bat zalakoan enutsan leenengoan garrantzi andirik emon, baiña tamalez egia santu bat da. Ziur egon nai dabenak, ez dauko besterik, Ogenbarreneko auzune barritik joan-etorri bat egin baiño; Gorbei mendian artalde txikarragorik ikusiko da. Azkar neurririk ezpada artzen oraindikan norbaiti kolkoan sartu jakozela entzungo da.

LEENENGO JAUNARTZEA

Etxanoko Andramariaren Eliza Nagusian, maiatzaren 20'an (Asentzio egunean) Etxebarria tar Bixenti, Lauzirika tar Pedromari, Zearreta tar Marikarmen, Zearreta tar Arantzi eta Bidaurrazagatar Adelatxuk euren leenengo Jaunartzea izan zuten. Zorionak etxanotar gaztetxu oiei .Kristau eta euskaldun benetakoak legez jarraitu aurrera be umetxo maiteok.

BOLARIAK ASI DIRA

Maiatzaren leenengoan zabaldu zan Sanantonion aurtengo bolari garaia. Aurretikan meza bat gure lagun izan ziran Zarrionandio tar Jerman eta Olano tar Joseren alde (G.B.) Gero bolari sariketa bat gomutagarri legez. An ziran sanantonioko «katredatiko» geienak: Bixenti, Etxano, Baleren, Mentxaka ta abar. Baita bere goiriatarrak. Zetan esan ezta Tenple eta Txatua. Oneik katedraikoraño ez dira eldo baiña... aal balute.

Gosari ederra neskatilla liraiñek zerbituta. Euba anaiak (Santi eta Elias) urten eben txapeldun.

Sanisedro egunean Bernagoitin, Martin Uriguenek (errebeldea) leenengo eta Migel Amorebieta, boroarra, bigarren. Bide batez euskal jai polit bat ikusi genduan bertako neskatillak antolatuta.

Orain seituan datoz Sanmigel eta Boroako jaiak, Jainkoak nai badeu ez det uste utsik egingo dedanik.

*Arrindape*

## legazpi

ZAINDARI JAIEN XALTXA

Illabeteak aurrez, gau-ta egun kezka bizian ekarri gaituen, Gurutze Deunaren jaiak, igaro zaizkigu. Zenbat amets-zoro **ez** ote dugu egin jai auei buruz. Bakoitzak bere erako amets xotillak, ain zuzen; Denok nabaitzen bai dugu zertxo baiten amets xamurra, zaindari jaietan.

Bukatzean... Bete ote ditugu amets goxo oek? Ase ote ditugu barrengo egarri gili oiek? Aztertu beza bakoitzak bere barren ori, ta erantzuna an arkitu bear. Aukera faltarik ez dala izan, autortu bearrean gaude.

Ona emen, jai-aldi berezienen batzuen berri.

Asiera eman zion, Eleiza Nagusiko, Eres-Abes jai-aldia, Legazpin berdiñik gabea izan dugula esan genezake. Aiek eresi goxoak, Gonzalez Bastida maisuaren mendean, Irungo Erri eres-batzak eskeñi zizkigunak. Aiek abesti eztiak, maisu berak zuzenduta, Easo abes-batzak abestu zituanak. Bi taldeak batean erestu ziguten irugarren atalak ere, bazuan asekaitzenaren gosea asetzeko ainbat giar-mami. Ausnartzen jakin bear, kutsua ateratzeko. Zuzendari ospetsu oni eskeiñi zitzaizkion bi eres liburu apaiñak ematerakoan (une ukigarria), denontzat. Benetako txalo sutsuz ordainduak izan ziran banan-banako eres lan guziak. Talde onen lanak bear ainbat goresteko, berak diran gisan, eres-abes maisu bear du izan. Mailla orretara iristen ez naizenez, ar bitzate, Zeruko Argia onen bitartez, zorion-agurrik beroenak.

ZAAR SARITUAK

Ibai-Ondo, antzokian, zaar-saritu auen omenez eskeñi zan jai-aldi berezi bat. Erritar soiñu-jole bostekoa; Zaigor, eta Itxaropena, abestaldeak; Alaitasuna rondalla, ta abar, soiñu, ta abesti atsegiñak eskeñiaz, tarteak algara goxoan igaro erazi zizkigun, Pello-Kirten zirtolariak, eta barrenak pil-pil zirala, jai-aldi anaikorra izan genduen zaar-saritu goresgarri auen omenez.

AURREN DANBORRADA

Ikuskizun aipagarrienetako bat, aurren danborrada, ta kalez-kale ibil aldia izan genduen. Eunda larogeita amar inguruko aur sailla. Era askotako dantzari, txistulari, arrantzale, kirol-zale, ta abar... jantzi apaiñez osatutako taldetan banatuak. Eraberriko «Astro nauta» taldea illargira bidean, zirudiean tramankulua, berekin zutela, ikuskizun arrigarri oni begira, irudimenak laiñoetan gora joan zitzaizkigun. Izan zuten nork begiratua. Ura jendetza bildu zan, erriko kale ta enparantzak betean. Jaso zituzten txalo, ta zorionekin, atsegintsu ziran umetxo auek.

ERRI MEZA

Bertsolari, txistulari, dantzari, alboari, ta erri osoaren abotsak kantari zirala, Erri-Meza jatorra entzuteko zoria izan genduen. Bertsolariak; On Pablo apaiz meza emaillea leenengo, erriaren otoitza bertso egokiz egin ziguna. Ondoren, Olea, Azarola, ta Agirre, erritar iaioak, mezaren eskeintza oroikorra zuzendu zuten. Txistulariak; Erri-txistulari batza, Donostiako «Argia» taldeko txistulariekin osatuta. Txalaparta, tobera, ta dantzariak, «Argia» taldekoak auek ere. Abeslari; Eleiza nagusia gaiñez betetzen zuan erri osoa, Euskal erri meza gogotsu abestuaz.

Bukaeran, dantzariak aldare aurrean aurreskua dantzatuaz, aipagarrizko meza ospatu zan.

Ondoren, pelota lekuan, txistulari talde, txalaparta, «Zaigor» eta «Itxaropena» abes-taldeak, eta, Azarola, ta Agirre, bertsolarien saio eskertuak, eman zioten amaiera eguerdi arteko jaiari. Arratsaldean, «Argia» taldearen dantza, txalaparta, ta albokarien ekin aldiak enparantzan. Gogotsu txalotuak izan ziran eskeiñi zituzten soiñuta dantza bereziak.

DANBORRADA NAGUSIA

Etzan logalerik gauerdian ospatu zan Elkartetako danborrada garaian. Zaar eta gazte denok kalean giñan danborrada ospatsu onen ikus miran. Bide batez, jaietako erregiña, da laguntzaille neskatxa panpoxak an bai zijoazten gurdi apaiñean distiratsu, erri guztia agurtuaz. Ikusgarri zan Legazpiko kale nagusia danborrada aipatu onen soiñuan.

GURUTZE DEUNAREN EGUNA

Egunari dagozkion MEZA NAGUSI, ta eleizkizunak eleiz nagusian.

On Antonio, erretore jaunak argiro aurkeztu zigun Mirandaolako Gurutze miraritsuaren edestia, xeetasun berezienak aditzera emanaz, itz-aldi mamitsua eskeiñi zigun. Ostetza aundia inguratu zan meza nagusi onetara, bukaeran gurutze miraritsuaren ikurrari laztan goxoa emanaz.

Meza ondoren, «Umetxoak» deritzan gaztetxoen dantza taldeak, dantzaaldi ariñak eskeiñi zizkigun enparantzan. Ondoren, Erri-eres batzak, bere eres sortako eresi berezienak jo zituan, entzuleen atsegingarri.

Arratsaldez, pelota jokaldi leenen maillakoak. Azkoitiako Erri-eres batzaren sarrera, kalez-kale doiñu alaiak joaz, ondoren enparantza gazteria dantzatuaz.

MARRAZKI LEIAKETA

Udal Liburutegi Errikoiak eratuta, erriko ikasleen arteko marrazki leiaketa. Eunda larogeita amar gazte, iru maillatan banatuak, saiatu ziran ezarri zitzaien gaiari buruz, marrazki lan oiek nork egokiago egiñaz. Irakasle, ta marrazki zaleen artean osatutako epai-buruen azterketa ondoren, ona emen sarituak. Leenengo maillan (gazteenak), Gaztañaga tar Jose Antonio, leenengo; Etxeberria tar Jose Antonio, bigarren; Etxeberria tar Beatriz irugarren, ogeita bi sarituen artean. Bigarren mailan (erdikoak), Arroio tar Jose Inazio leenengo; Otxoa tar Juan Karlos, bigarren; Lorenzo tar Mari Isabel, irugarren; amabost sarituen artean. Irugarren maillan (aundienak), Maiz tar Tomas, leenengo; Gonzalez tar Karlos, bigarren; Burgera tar Jesus M.ª, irugarren; amabost sarituen artean.

OSTIKALARIAK

«Real Sociedad Sanse», ta Eibarko taldeen artean aukeratutako ostikalariak, Ikastolaren aldeko jokaldian, Eibartarrak irabazle. Ikusle asko bildu zan Itxartegi zelaian, ikastolari laguntza oparoa eskeiñiaz.

AURREN EGUNA

Jai nagusiei bukaera emanaz bezela, Maiatzaren bederatzian, aurren eguna aundikiro ospatu zan. Goizeko leenengo orduetan bildu zan ikusgarrizko txisulari sailla goierri osotik etorriak. Urretxu, Zumarraga, Ormaiztegi, Beasain, Segura, ta Lazkaotik, irurogeita amarreko txistulari neskatz-mutiko gazteko, talde mardula bildu zitzaigun, errikoekin batean umeen egun au atsegiñez igarotzeko. Talde ugari onen zuzendari, Beasaingo Aranburu, txistu maisu jatorra zutelarik, eresi goxoak joaz, entzungarrizko biribilketa kalezkale eman zuten. Amarretan, erriko aur talde ikaragarria ondoren zala, Eleiza nagusitik, Gurutz Miraritsua Mirandaolako kapillara, ibil deunean eraman zan. Mirandaola zelaia ikusgarri zan Gurutzea iristean. «Umetxoak» dantza taldea, txistulari sailla, ta erritar jendetza aundia inguru zala, kapilla atarian Meza Deuna eman zan, erdi-euskera erdi-erderaz bitarikoa, neskatxa-mutiko aurrak abeslari. Bukaeran, gurutzearen kutunari muxu xamurra emanaz bukatu zan elizkizuna.

Ondoren, aintziñako erara uraren indarrez, olagizonak burni guriak mailluaren daunbatekoan, luze-zabal zanpatu zituzten txinparta zeriotela. Era berean, «Umetxoak» dantza saio atsegiña eskeiñi ziguten. Urrena txistulari taldeak eresi alaiak jo zituan, erromeri giro jatorra sortuaz. Euskal kutsu pozgarrian Mirandaolako Gurutz miraritsua maitekiro agurtuaz.

Eguerdian, txistulariak berriro kalez-kale, enparantzan jo-aldiari bukaera emanaz.

Arratsaldean, Artzai Onaren ikastetxean aur, ta txistulariak bildurik, kale jiran pelota lekura inguratu ziran. Emen jai-aldi berezi batekin aurren marrazki leiaketan irabazitako sarien banaketa egin zan. Sari banatze onetara, Azurza, jaun alduna, etorri zitzaigun, aurren egun, eta bide batez erriko jaien bukaera egiñaz.

Aipatu ditugunez gain, txirrindulari, bolari, plater-tiro, ikasleen arteko kirol saioak, xexenak, eta abar... zenbatu ezin ainbat gauza, izan ditugu, festa osagarri. Norbait ase ez bada itxoin beza datorren urtera arte... aurtengoen aazgarriak izango bai dira.

AN-ZAN



# aita santuaren karta

## Maurizio Roy Kardenal Jaunari RERUM NOVARUM Enziklikaren larogeigarren urtean

**1**

Larogeigarren urtea degu RERUM NOVARUM Enziklika agertu zala. Aren irakatsiek oraindik ere argirik ematen die gizarteko zuzentasunaren alde diardutenei. Urteurren au dala-ta, gogoak eman digu gure aurrekoen irakaspenak aurrerago eraman bear ditugula eta zeatzago azaldu, aldatzen ari dan mundu onen premi berriei erantzuna eman bearrez. Elizak, izan ere, gizartearekin batean egiten du bere bidea, eta, mendeak joan mendeak etorri, berea egiten du gizartearen zoria. Jaungoikoak maite dituela eta Kristorengan salbatuak dirala gizonei ots egiñez, Ebanjelioaren argia eskaintzen die oiei beren egitekoetarako, eta, orrela, Jaungoikoaren maitasun-asmoei erantzuten eta beren oberako amesak egi oso biurtzen laguntzen die.

**2**

### Zunzentasun obe baterako dela guztiei

Biotza lasaiturik dakusgu Jaunaren arnasa gizonen biotzetan bere lana egiten eta gizarteko eginbideen jabe diran kristau-taldeak sortzen. Lurralde guztietan, enda, erri, kultura eta bizibide guztietan sortzen du gaur ere Jaunak Ebanjelioaren apostolu jatorrik.

Olako apostolu oniriztekorik aurkitu eta itzez gogobetzeko zoriona ere izan degu gure oraintsuko ibillietan. Gizaltaldeengana urbilduak gera eta aien deiak entzunik gaude. Kezka ta itzaropenezko deadarrak ziran. Olako orduetan, argi berritan ikusi ditugu gure mendeak dituen arazo astunak; egia da lurralde bakoitzak bereak ere badituela, baiña gizadi osoarenak ere badira, gizadi osoa galdezka baitago zer etorkizun izango ote duen, orain ari diran aldakuntzak nora jotzen eta zer esan nai duten. Ekonomi, kultura eta politika-saillean erriek daramaten aurrerabidean ezberdintasun gogorrak daude oraindik: industri aundia duten errien ondoan, beste batzuk nekazaritza-maillan daude; eroso bizitzea zer dan badakitenen aldamenean, beste batzuk gosea kendu eziñik dabiltza; kulturmaillan goi daudenen ondoan, beste erri batzuk or diardute oraindik eskolarik-eza nola garaituko. Bazter guztietan zuzenbide obera dijoaz, pake seguruagoa nai dute, gizon eta erri guztiek elkarri itzal eta begiramen andiagoa izango dieten giroan.

**3**

### Kristau guztiak ez daude munduan egoera berdiñean

Egia esan, kristauak, nai dutela ta ez dutela, egoera oso ezberdiñetan sarturik daude erri bakoitzean, gizarte, politikaera eta kultura bakoitzean. Alde batzuetan ixillik egotera bearturik daude, fiatzekoak ez dirala-ta; gizartetik aldendurik dauzkate, askatasunik gabe totalitarismo deritzan legepean zapaldurik. Beste leku batzuetan, talde txiki indar gabea osatzen dute eta nekez entzunerazi dezakete beren abotsik. Elizari bere lerroa aitortzen diote erri batzuetan, iñoiz lege etan ere bai; baiña olakoetan ere, gizartea dardar daukan aldakuntza-giroak jo ta astindurik dakusgu bera, eta aren seme batzuk indarrezko zirt eta zarteko aterabideak naiago dituztela dabiltza, orrela zoriobeko ondorioak izango dituztelakoan. Batzuk begien aurreko zuzengabekeriez konturatu gabe leengo egoerari eusten saiatzen dira; beste batzuk, berriz, iraulketaren aldeko ideologietara itsumustuan dijoaz, ortik mundu ezin obea betiko ekarriko dutelako ustetan: ez ustelik gabeko ustea.

**4**

Egoera ain ezberdinen aurrean, zail degu itz bat eta bera bakarra esatea, edo ta guztientzat balio dezaken burubiderik ematea. Ezta ori gure asmoa ez gure egikizuna ere. Kristau-elkarte bakoitzari dagokio bere erriko egoera dagoen dagoenean aztertzea; dana Ebanjelioaren argitan begiratu bearko dute; andik pentsamoldeak, irizpideak eta jokabideak atera, gogoan izanik ortan Elizak mendeak zear eman dituen gizarte-irakatsiak, batez oraingo industri-mende ontan emanak, Leon XIII garrenak "langilleen egoerari buruz" bere irakatsiak eman zituen urte gogoangarri artatik asi eta orain aren urteurrena atsegiñez eta pozturik ospatzen degun uneraiño.

Espiritu Santuaren laguntzaz, eta artarako kargu duten gotzaiekin batean, eta beste kristauekin eta gogo oneko gizon guztiekin elkar-izketan, kristau-talde oiei dagokie asmatzea zein jokabide artu ta nortzuekin lan egin bearko duten, une bakoitzean premiazkoenak diruditen berrikuntzak burutzeko gizartean, politikan eta ekonomian. Berrikuntza oientzat bidea urratzerakoan, kristauek auxe egin bearko dute, leenbizi: Ebanjelioaren mandatuak daukan indar berezian siñismena piztu. Beste gizarte ta kultur-giro batean zabaldua, idatzia ta bizia izan dan arren, Ebanjlioa ez da atzean gelditu. Bere argiak, mendez mende ta belaunez belaun kristauek beren bizian ikasi dutenaz aberasturik, beti berri dirau gizonak barrutik berritzeko eta gizarteko bizitza aurrerapidean jartzeko, naiz ez dan erabilli bear norbaitzuek artu lezazketen munduko edozein joerari indar emateko (1).


**donostiko aurezki kutxa municipaleko arpidedun izateak ba du beste onura bat ere: bertan ezaritako kontu irikiak egingo dizun laguntza**



Gure sendian aspaldítik degu Donosti'ko Aurrezki Kutxa Munizipal'akin artu-emana. Dirua nun sendoago ta seguruago? Aurrezki Kutza'ko «noiz-naiko» libretan noski. Ala ere, oraindik orain arte ez oartu Libreta'ko kontu-irikitzeak eman dezaiguken erreztasuna. Len beti leiatillaz - leiatilla kontuak ordaintzen. Aspergarria ta nekagarria benetan. Iriki degun ezkero berriz ezeren kezkarik ez. Donosti'ko Aurrezki Kutxara ots egin eta berak egiten du guzia.

*Alderdi on oyek gozatzeko ezarri gaur bertan Donosti'ko Aurrezki kutxa'n kontu irikia ta lasai biziko zera.*

CAM DONOSTI'KO AURREZKI KUTXA MUNIZIPALA'K

publivasc

5

## Elizaren irakaspen berezia

Oraingo iraultze ta zalantzen erdian, Elizak berea duen irakatsirik badu emateko; eskua eman bearra dauka gizonei etorkizuna menderatu ta antolatzeko ari dituzten ekiñaldietan.

**RERUM NOVARUM** Enziklikak argi ta garratz salatu zuen industri-gizarte jaioberrian langilleek zeukaten egoera lotsagarria. Baiña arrez gero, Quadagesimo Anno (2) eta Mater et Magistra (3) enzilikak erakusten dutenez, beste alderdi ta egokiera batzuk azaldu dira giza-gogoaren aurrean, gizarteko zuzentasuna ezartzeko. Oraintsuko Konzilioak ere alegiñak egin ditu ori nabari jartzen, Gaudium et Spes delako legean. Guk ere aurrerakada bat eman genuen bide ontan gure Populorum Progressio Enziklikan. An esaten genuen: "Gaurko gertakizunik garrantzutzuena, guztiak artaz jabetzekoa, auxe da: gizarte-auziak mundua beteko naurriak artu dituela" (4). "Elizak, Ebanjelioak ezartzen dizkion eginbideetaz berriz jabetu nai baldin badu, gizonei lagundu bearra dauka auzi astun oni neurriak artzen eta gizadiaren une larri ontan elkarrekin jokatzea premia gorrizkoa dutela guztiei buruan sartzen" (5).

6

Gaiñerakoan, urrengo Gotzai-batzarraren egitekoa izanda urbillagotik eta sakonago aztertzea Elizak zer egin bear duen munduan zuzentasunak dituen auzi beltzak argitzeko. Kardenal Jauna: **RERUM NOVARUM** dalakoaren urteurren onek aukera ematen digu zuri, "Zuzentasuna ta Pakea" deritzan Laiko-batzordearen buru zeran orri, emen guk ditugun kezkak eta gogoa agertzeko. Onela, poza eman nai diegu Ermomako Aulkiaren (Aita Santuaren) esaneko diran ekintza-talde guztiei gizonen onerako daramaen lanean.

7

## Aldakuntzen zabalera

Au egitean gure aurrekoek ikutu ta azaldu zituzten saillak aaztu gabe, gogoak esnatu nai genituzke eta gai batzuei begira jarrierazi: premia aundiko gaiak dira, zabalera aundikoak, alderdi asko dutenak; orregagatik urrengo urteetan kristau guztien gogoetan kezkarik aundiena sortu bearko dute, beste guztiekin batean gizonen etorkizuna bera galdugordean jarri bear duten oker berriak zuzentzen saiatu ditezen. Gaurko ekonomiak gizartearentzat sortzen dituen auzi-buruak (gizonari dagokionezko lana, berdintasuna gauzen sarietan eta irabazien banaketan, gero ta geiago eralgi bearrak esan nai dauana, jabetasunean parte artzea) zibilizazio berri baten barru zabalagoan sartu ta ikusi bearra dago. Bat batean gertatzen diran oraingo aldakuntza ain sakonetan, gizonak berri ikusten du bere burua eta galdezka jartzen da nora ote dijoan bera eta nora gizartea. Leena joana eta oso ezberdiña zala-ta, ez du artu nai aren irakaspenik; etorkizuna argitu bearra dauka, ordea, ain illun eta ezbaiko ikusten duen etorkizun ori argitu bearra, nola? ta betikoa ta iraunkorra dan egiari eldurik. Bera baiño gorago dauka egia ori, baiña aren aztarnak aurkitu eziñik ez dauka, berak nai baldin badu (6).

8

## Urietarako joera

Gertakizun aparteko bat badegu gure begien aurrean, bai industri-erri aurreratuetan eta bai atzeratuetan ikusten dana: urietarako joera.

Gizaldi luzeen buruan nekazaritzak bea jo bear du. Eta begiratzen ote zaio bear aña nekazarien bizimodua gaurkotu ta obetzeari? Ala, baserrietako irabazpide urri ta neketsuak bultzatzen ditu aiek uri-inguruetako etxe-pilla itxusietara, ez lanik ez ostaturik aurkitzeko. Baserrien etengabeko ustualdi onek, industriak geitzeak, gizonak ugaritzeak, uribarruetako bizimoduaren lillurak, jentea urietan pillaka biltzera dakar ezin asmaaleko uriak sortzeraiño: amar milloiko asko bilduko dituzten uri nausiak izango omen dira. Egia esan, badira uriak, aundi izateagatik, jentea banatzeko aukera obeak dituztenak. Nekazaritzaren aurrerapenak lanik gabe utzi dituenei lanbidea emateko egokiak dira eta gizonak aietan sartu litezke, benetako giza-giroan artu ere, langilleria argatik ugaritu gabe eta etxe-pilla andiegirik elkarren gain metatu gabe.

9

Industri geitzearekin batera dator uriak orrela aundiegi egite ori, baiña ez dira biak bat.

Beti teknika berrien billa eta izadia aldatu bearrez, industriak aurrera egiten du, beti zer berriak asmatuaz. Eta lantegi batzuk gora joan eta elkarganatzen diran bitartean, beste batzuk il edo aldatu egiten dira, ola gizartearentzat prolema berriak sortuz: lanteri bateko edo erri oso bateko lanik-eza, lanaren edo langilleen aldaketa, langilleak beti lan berrietarako baitu bearra, industri bateko eta besteko egoera ez berdiñak. Gaur zabalkunderako dagoen, erreztasunez baliatuz, elkarren leia geiegizkoan ibiltzeak gai berriak botaerazitzen ditu beti erosleei deika, eta bien bitartean oraindik lanean diarduten lantegi zaarrak alperreko biurtzen dira. Batetik jendetalde aundiak beren premiarik gorrienak estaldu eziñik daude; bestetik, bear ez diran gauzak erosi bearra sortzen. Orduan galdera au berez dator: ez ote ditu gizonak bere lanaren emaitzak bere kaltetako biurtzen? Izadiaren gaiñean bearrezkoa duen jabetasuna iritxi ondoren, ez ote da berak egindako gauzen morroi egiten? (7).

10

## Kristauak urian

Industri-zibilizazioak indar artzearekin batera datorren uri-bizitza ez al da, orrela, gizonaren jakinduriari, gauzak moldatzeko duen trebetasunari eta gero ikusteko nai luken asmamenari egozten zaion norgeigokako irrintzi bat?

Industria jabetu dan gizartean, uri-bizitzak azpikoz gora ipintzen ditu leengo oitura ta bizi-moldeak: familia, auzoa, kristau-elkartearen ingurua bera ere bai. Gizonak bakartade berri bat sumatzen du, bakarrik dago, ez ainbeste gizaldiren buruan garaitu duen izadi etsai-betozkodun baten aurrean, bai izenbageko ainbeste lagunen aurrean, aien erdian bere burua kanpotar ikusten duela. Uri-bizitzarako joera onek ez du atzera egiterik gizadiaren aurrera eginbear ontan, eta prolema gogorrak ekartzen dizkio gizonari: nola gelditu nola neurri batera ekarri, nola egin guztien onerako izan dedilla?

Itxumustuko aurrera egite ontatik langilleteri berriak sortzen dira. Aberatsek utzitako uribarruetan sartzen dira oiek; edo uri-inguruetako auzoak artzen dituzte bizileku, uriari zorri-esi bat bezela jartzen diotela, beren marmar ixillez jan ta eralgi dabiltzanen urietako lasaikeri lotsagarriegia salatuz.

Anai-artea ta elkar-laguntza erraztu bearrean, uriak bereizketa geiago sortzen du, baita elkarrenganako ardurarik eza ere; morroikuntza ta jauntxokeri berriei zabaltzen die bidea; ortik, besteen premiez baliatuz, askok ezin-on artuzko irabaziak ateratzen dituzte. Etxeen ormabarruak ezin bizi gorrienen estalki dira, auzoko urbillenak ere ez dakitela, eta gizontasuna lurra jota dabillen lekuetan beste gaitzik ere azaltzen da: lapurretak, gaiztakeria, drogak, lizunkeria.

11

Aulenak dira, izan ere, gizontasunari dagokionez bizi eziñago dabiltzenak, giza-gogoarentzat lotsagarri eta etxe-bizitzarako kaltegarri diran egoeratan bizi dirala: etxe-zuloetan asko nastean bizitzeak zail egiten du etxekoak etxekoekin bizitzea; ezkonberriak, etxe egoki bat noiz izango begira ta begira, etsimenean erortzen dira eta bere elkartasuna re arriskuan geldi liteke; gazteek, etxe estuegietatik igeska, kalera jotzen dute ala-olako leku ta lagunen billa. Joera au geldierazi ta zuzentzea agintarien eginbearrik estuenetakoa da.

Kale bakoitzean, auzo edo etxe-pilla aundi bakoitzean, gizonak bere nortasuna zabaldu al izateko bear duen gizarte-girozko sarea sortu bearra dago. Parroki ta elkarte bakoitzean, jentea ekarri ta kulturaz jazteko lekuak eraiki edo aurrera atera bearko dira, eta era guztietakoak: naiz jolastokiak dirala, naiz biltoki, lagunart edo gogo-bizitza pizteko bilkurak; an, gaurko jendarte aundietako bakartasunetik iges egiñik, bakoitzak anaitasunezko lagunartea aurkitu dezan.

12

Ainbat gizon eta elkarteen bizileku dan uria egin, an elkartasun obean bizitzeko erak sortu, gizarteko zuzentasuna non nola jarri ongi ikusi ta nekerik emango duen guztion etorkizuna gaiñean artzea, kristau guztien zeregiña da.

Urietako giza-erlauntzetan elkarren gainka lotsagarri bizi diran gizon oiei itxaropenezko berri ona eraman bear zaie benetako anaitasunez eta egite biurtutako zuzentasunaren bidez. Kristauak, eginbear onen jabe egiñik, ez beitez urietako nortasunik gabeko itxaso zabalean kikildu; gogoan izan bezate arako Jonas-ena: nola ibilli zan luzaro Ninibe uri aundian batera ta bestera, Jaunaren errukiak eskaintzen zuen barkamena zabaltzen; bere aulerian Jainko guzialdunaren itzak, bestek ez zion adore ematen. Bibliarentzat, uria askotan pekatu ta arrokeri-lekua da; an, arrokeriak puzturik, gizonak bre buruaren jabe dala uste du eta ez duela Jainkoaren bearrizanik bizia antolatzeko, edo ta Aren aurka bere nausitasuna sendotu nai du. Baiña bada uri santurik ere, Jerusalen, Jainkoarekin elkartzeko lekua, goitik datorren geroko uriaren agintzaria (8).

13

## Gazteak

Uri-bizitzak eta industri berriak, gaiñera, orain artean gutxi ezagunak ziran arazoak ateratzen dituzte azalera. Esaterako, sortzen ari dan mundu ontan zer egiteko izango dute gazteek? Gazteri berrizale, goranai ta nora jo ez dakianaren eta adiñekoen artean zail agertzen da elkar-izketa. Nork ez du ikusten, famili-barruetan ere, paketxarrak, elkar artu eziñak eta igeskadak sortzen dirala, eta or eztabaidaka diardutela, ea nola agindu bear dan, nola aukeramena landu, nolako bizilege ta siñiskaiak eman. Orra gizartearen sustrairik sakonenak jotzen dituzten eztabaida-gaiak.

## Emakumeen lekua

Errialde askotan, era berean, badiardute, eta batzuetan eskabide gogorrak egiñez, emakumearentzat bere legea egin bearrez, oraindik or dirauten ezberdintasunak kendu eta emakumeak eskubide berdiñak eta berari zor zaion begiramena iritxi dezan. Ez degu aipatu nai beste berdintasun gezurrezko ori, Egilleak berak jarritako ezberdintasunak ukatzen dituen ori. Berdintasun ori, emakumeak etxean eta gizartean daukan egikizun berezi ta ain bikaiña ukatzea litzake, Legeak, ordea, aurrera egiterakoan, emakumearen egikizun bereziaren alde jo bear du, eta, era batera, aren nortasuna ta jabetasuna zaitu, eta berdin, ekonomian, gizartean, kulturan eta politikan parte artzeko daukan eskubidea ere.



**Bodegón Alejandro**

Alejandro'ren Bodega dago
Donosti'ko txoko baten,
bein ezagutzen dutenak zintzo
takite aruntz joaten.
Nai dan aukera ba-dezu beti
jaten bezela edaten,
oberik ezin arki diteke
merke ta ondo ematen.
**Fermín Calbetón, 4**

**DONOSTIA**

**JOSE ZINKUNEGI'REN**
**OPTICA BERRIA DONOSTIAN**
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
HERNANI, 4 DONOSTIA

**GURELESA**

**Gipuskoa'ko ta Naparroa'ko esne onenakin gertatutako esnekiak:**

- Esne Pasturizatua
- Esne soilla (esterilizatua)
- Esne autsa
- Esne-gaiña
- Guriña
- Yogur
- Batiduak

**Igara auzoa - Apart. 213 - Urrut. 20060 (lau ari) — DONOSTIA**

# Euskal Herriko paisajea

Mundu guztian paisajeaz gero eta gehiago arduratzen badira, zer esanik ez, gure Euskal Herrian gai honek dadukan garrantzia.

Ez da inolaz ere, gaurko problema berri bat. Behar bada gure inguruen edertasunak, gure topografia aldrebesak uzten dituen lur tarte eskasak eta gure herrien haunditze azkarrak, gero eta kezka latzagoa sortzen ari da gure artean.

Oraingoz, paisaje ruralaren ondoan gertatzen diranei buruz hitz egingo degu. Beste artikulu batetan, herri barneko —paisaje urbano— espazioei buruz saiatuko gara.

Paisajeari buruz hitz egiten hasi baino lehen garbi ulertu behar dana da paisajeak oso gutxitan gordetzen dituela bere kondizio naturalak. Gure asaba zaharrak gelditu gabe aritu ziren paisajea landuz aldatzen. Garai diferenteetan kondizionante sozio ekonomiko eta kulturalak, herriaren legeak, ohiturak, sikologiak, nekazarien teknikak, gizonaren borrokak eta lanak, lurraz eta itsasoaz... agindu dute paisajearen jokabidea. Gure dan gaurko paisaje bat ulertu nahi baldin badegu, kultura, mailla askotatik analizatu behar degu.

Gizona etenik gabe sortzen ari dan aldakuntza ikusteko, gure mendietako basoetan azken urteotan gertatu danari begiratzea nahikoa degu: pagoz eta aritzez beterik zeuden mendi basoak, urte gutxiren barru piñudi bihurtu zaizkigu, gure basoek zuten nortasuna galduaz. Zer esanik ez dago, paisajearen aldakuntza dinamika, herrien desarroilloarekin bat eginik azaltzen zaigula gehienetan. Industri reboluzioak, beste zenbait maillatan bezala, "inpakto" ikaragarria eduki zuen gure paisajean. Hunditze ritmo normaleko garaietan paisajeari eta lurraldeari hain ondo loturik zegoen zenbait herri, bere nortasunaren kontrola ordu ezkero galtzen hasi zan.

Geroztik, arbolen aldatzearen ondoan nekazariak seortutako aldaketen ondoan "urbanizazio prozesoak" izugarrizko garrantzia hartu zuen gure paisajearen definizioan.

Paisajearen dinamismoa onartu ondoren, gaurregun hemen, Euskal Herrian bizi garenok, gure erresponsabilidade historikoa ulertu ondoren, gure lurrari eusten dioten lanak, proiektoak, gurea dan paisajeaz "urtuko eta bat egingo" diranez, etorkizuuaren anrrean hartzen degun konpromisoa gogoan hartu behar degu, eta egia esan, gaurko haunditze azkarrarekin gure "inguru natural" estuetan, gure paisaje aberatsari, ekilibrio bat billatu behar badiogu, geure obrak paisajean integratu behar ditugu, gaia sakon sakon elaboratu behar degu.

Beste zenbait gauza bezala, gaurregun askotan, paisajea konsumo "gauza" sakratu baten gisa erabiltzen da, denona dan "gauza" sakratu batez trafikatuaz. Nahikoa da industria bat tokitik kanpora egitea, nortasunik gabeko etxe bizitza mordo bat jasotzea, ibar oso baten paisajea ondatzeko, hibai bat husteltzeko, itsasbazter bat alferrik galtzeko.

Ba dira gure artean, paisajea onda ez dedin, soluziorik egokiena, gauzak ez ikutzea dala, diotenak. Nahiz eta deskonfiantza hori ulererrexa izan, gaurko desarroillo urbanoaren krisisean ezin dezakegu uka, gaurregun geure eskuetan dauzkagun teknikekin paisajea behar bezala zaindu eta indarberritu dezakegula.

Gure lurraren, gure kulturaren, gure paisajearen nortasuna ondo analizatu tea ulrtu ondoren, gure arbaso zaharrek paisajeari eman zioten eboluzioa estudiatu ondoren, geuk ere gerokoentzat paisaje berri baten egiturak, estrukturak jarri beharko genituzke.

Betoz industria berriak gure ibarretara, baiña bertako giroa, hibaiak, paisajea ondatu gabe.

Betoz etxe bizitzak gure mendi maldetara, baiña hauzoko etxe eta hauzoko paisajearen estrukturaz bat eginda.

Betoz bide berriak, autopistak, baiña paisajean horrek izan dezakeen garrantziaz aldez aurretik ondo konturatuta, paisajean eskala berri jator bat sortuaz.

Teknologia aurreratuenak, sistima berrienak, lehen bezala gaur ere ba dute leku gure medietan; gure ibarretan, gure hibai ondotan, gure hibai ondotan, gure itsas bazterrean. Sensibilidadea, beste arrazoi ahul eta egoista batzen aurretik jarriko bagendu, etorkizunaren aurrean paisajeari zor diogun begirunea eta errespetoa azalduko genduke.

Xabier Unzurrunzaga





Añanako gatzegak, Araban, Gure arbasoek beren lanerako moldatutako egiturak, paisajearekin, lurrarekin, behar bezela bat egiñaz.



Tolosa 1961 garrenean. Betoz industriak, betoz etxe bizitzak, betoz bide berriak...



Euskal herrietan, azken urteetan sortutako etxe-bizitza tipologia berria. Nun da paisajeari zor zaion errespetoa?

Gráficas Navasal - Errotazar, 42 - Pamplona, España'n egiña - D. L. NA. 80-1963